

**Euskaltzaindiaren
2006ko
Oroitidazkia**

Bilbo, 2007ko maiatzaren 23a

AURKIBIDEA

Atarikoa	4
I. Erakundearen jarduerak	6
I.1. Akademiaren jarduerak	6
I.2. Batzar bereziak	15
I.3. Kanpoko jarduerak	17
I.4. Euskaltzaindia erakundeetan	19
I.5. Heriotzak	20
I.6. Hilberri txostenak	21
I.7. Izendapenak eta ordezkapenak	23
II. Akademia-jarduera	27
II.1. Hiztegi-gintza	28
II.1.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia.....	28
II.1.2. Hiztegi Batua.....	28
II.2. Gramatika	31
II.3. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa.....	33
II.4. Onomastika	35
II.5. Literatura	38
II.5.1. Herri Literatura	38
II.5.2. Literatura Ikerketa	38
II.5.3. Sariketak	40
II.6. Euskara Batua.....	43
II.7. <i>Jagon</i> saila	44
II.7.1. Corpus alorreko lanak	44
II.7.2. Sustapen alorreko lanak	45
III. Erakunde zerbitzuak	48
III.1. Egoitza eta ordezkariak	48
III.2. Azkue Biblioteka	56
III.3. Argitalpenak.....	59
IV. Herri Administrazio eta erakundeak	62
IV.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak.....	62
IV.2. Nafarroako Gobernua	64
IV.3. Estatu Administrazioa	66
IV.4. Iparraldeko Herri Aginteak.....	67

IV.5. Udalak.....	68
IV.6. Unibertsitateak.....	71
IV.7. Euskaltel	72
IV.8. EiTB	72
IV.9. Euskal Herriko ikastolen konfederazioa.....	72
IV.10. Topagunea	72
IV.11. FEVE	73
IV.12. Bizkaia Irratia	74
IV.13. Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)	75
IV.14. Labayru Euskal Kultur Erakundea.....	76
V. Euskaltzaindiaren organigrama.....	77
V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak.....	78
V.2. Hitzarmenak.....	80
V.3. Batzordeen zerrenda	81
V.4. Helbideak / Aurkitegia.....	85

Atarikoa

Joan den urtea gertakariz betea izan da. Alde batetik, Euskaltzaindiak Argomaizen 2005ean aho batez onartu zuen Arautegi aldaketa 2006an jarri da indarrean, eta, horren kariaz, euskaltzain emerituen figura ibilian hasi da. Ondorioz, 75 urtetik gorako sei euskaltzain oso (Jose Antonio Arana Martija, Piarres Xarritton, Xabier Diharce “Iratzeder”, Jean Haritschelhar, Emile Larre eta Antonio Zavala) emeritu egoerara iragan dira, horregatik bilkuretara etorri gero, beren ohiko eskubide osoak galdu gabe. Tamalgariagoa izan da, ordea, Patxi Altuna euskaltzain osoaren, eta Gaizka Barandiaran eta Jose Mari Etxaburu “Kamiñazpi” urgazleen behin betiko galera, herioak horien erabateko hutsunea utzi digu eta.

Halere, Euskaltzaindiak badaki bere burua kima berriaz hornitzen. Urte berean hiru euskaltzain berri izendatu dira: Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Mikel Zalbide eta Andoni Sagarna, herrialdez hirurak gipuzkoarrak, baina lanbidez oso ezberdinak, Euskararen Akademiari zeinek bere arloko jakituria ekarriz, idazletzan, irakaskuntza-administrazioan eta informatikan.

Aurreko urtean izendaturiko beste bi euskaltzain osok, Ana Toledok eta Patxi Salaberrik, beren sarrera-hitzaldia egin dute, lehenak Antzuolan, Deba arroan, eta bigarrenak Uxuen, Nafarroaren hegoaldean.

Era berean, euskararen alde, maiz Euskaltzaindiarekin elkar-lanean, egindako lanaren esker onez, hogeita hamabost euskaltzain urgazle izendatu dira, euskal herrialde guztietakoak, etorkizunerako lankide.

Denbora berean, lehendik hasiak ziren proiektu batzuekin aurrera egin da, hala nola Hiztegi Batuarekin edota Hizkuntz Atlasarekin. Halaber, Literatura Ikerketa batzordeak Jean Haritschelhar gidari, aspaldiko urteetan prestatzen ziharduen Literatura Hiztegiari azken ukituak eman eta moldiztegiara eramateko prest utzi du, eta laster argitaraturik ikusiko dugu.

Asmo berriak ere martxan jarri dira. Euskaltzaindiaren Hiztegia, adibidez, 2000ko Hiztegi Batuaren hitzak esanguraz eta adieraz hornituko dituena, Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean.

Bide beretik, argitalpen bilduma berria plazaratu da, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, *Mendaur* deritzona. Hor, alde batetik, Jose Mari Satrustegik *Príncipe de Viana*-n kaleratu zituen lanak dira, Andres Iñigok liburu bakar batean bilduak; bai eta Baztango euskararen gramatika eta hiztegia ere, Pello Salabururi esker prestatua.

Ez dira lehenagoko euskaltzaleen urteurrenak ahortzi, eta horrela, Urnietan Plazido Muxika eta Zaldibian Frantzisko Ignazio Lardizabalen omenaldi-ekitaldiak egin dira, eta Elantxoben, berriz, Andima Ibiñagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteriarrenak. Euskal Herrian legepean

izandako lehenbiziko ikastolaren 40. urteak ere (Azkue Ikastola) gogoan izan ditugu, eta irakastegi horretako partaideekin behar bezala ospatu.

X. Jagon Jardunaldiak Bilbon antolatu dira azaroan “Europar Batasuneko eremu urriko hizkuntzak” gaia jorratzeko.

Euskaltzaindiak, gainera, orain arteko bideari eutsiz, 2006an ere, gure gizarteko beste erakunde eta elkarte eragile batzuekin hitzarmenak sinatu ditu, elkarlanean aritzeko konpromisoarekin: Bizkaia Irratiarekin, Euskarazko Komunikazio Taldearekin, Labayru Euskal Kultur Erakundearekin. Horiekin batera, udal batzuk ere izan dira: Zornotza, Azkoitia, Oiartzun (toponimia normalizatzeko xedeaz) eta Santurtzi (Andolin Eguzkitzaren lanak katalogatzeko).

Beti ere gure aurrekoek Euskaltzaindiari ezarri zioten lema buruan izanda: *Ekin eta jarrai*.

Xabier Kintana idazkariak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

2006ko ekintza nagusiak

2006. urtean zehar Euskaltzaindiak honako osoko bilkurak egin ditu:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	27	Donostia	- Batzar arrunta - Ageriko batzarra: hilberri-txostenak
Otsaila	24	Egoitza	- Batzar arrunta
Martxoa	31	Gasteiz	- Batzar arrunta - Ordezkaritza berria
Apirila	27	Urnieta	- Batzar arrunta - Plazido Mujikaren jaiotzaren mendeurrena
Maiatza	26	Elantxobe	- Batzar arrunta - Andima Ibinagabeitiaren mendeurrena - Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteriarri omenaldia
Ekaina	29	Donostia	- Ageriko batzarra: hilberri-txostenak
	30	Zaldibia	- Batzar arrunta - F. Ignazio Lardizabalen jaiotzaren 2. mendeurrena
Uztaila	20	Antzuola	- Batzar arrunta
	21		- Ana Toledoren sarrera-hitzaldia
Iraila	28	Uxue	- Batzar arrunta
	29		- Patxi Salaberriren sarrera-hitzaldia
Urria	27	Egoitza	- Batzar arrunta - Ageriko bilkura: R. M. Azkue -gaur Lauro- Ikastolaren legezatzearen 40. urteurrena
Azaroa	24	Egoitza	- Batzar arrunta - X. Jagon Jardunaldiak
Abendua	22	Donostia	- Batzar arrunta

Hezkuntza Sailaren eta atzerriko adituen bisita

Urtarrilaren 19an, egoitzan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kide bat eta atzerriko bi aditu bildu dira IRALE programaren berriztatzeaz jarduteko. Euskaltzaindiaren Idazkaria eta Idazkariordeak egin diete harrera. Hezkuntza Saitetik Mikel Zalbide Euskara Zerbitzuaren arduraduna izan da, eta atzerritik, aldiz, hauek:

- Durk Gorter jauna, Amsterdam-eko Unibertsitateko irakaslea eta frasieraren Akademiako kidea.

- Carolyn J. Benson andrea, Estatu Batuetako eta Suediako hiritarra, eta Estocolmo-ko Unibertsitateko irakaslea.

Euskaltzain oso berriak

- Martxoaren 31n, Gasteizen egin den osoko batzarrean, Euskaltzaindiak Jose Irazu, “Bernardo Atxaga” jauna izendatu du euskaltzain oso, Juan Mari Lekuonaren hutsartea betetzeko egin den bozketan.
- Apirilaren 27an, Urnietan egin den osoko batzarrean, Euskaltzaindiak Mikel Zalbide Elustondo jauna izendatu du euskaltzain oso, Patxi Altunaren hutsartea betetzeko egin den bozketan.
- Abenduaren 22an, Donostian egin den osoko bilkuran, 25 eta 26. aulkiak betetzeko bozketak egin ditu Euskaltzaindiak. Andoni Sagarna Izagirre euskaltzain oso izendatua izan da, Euskaltzaindiaren Arautegiak agintzen duen gehiengo osoa lortu ondoren. Hutsik geratu da 25. aulkia.

Plazido Muxikaren omenez, ageriko bilkura Urnietan

Apirilaren 27an, Urnietan, Plazido Muxika zena omendu du Euskaltzaindiak. Goizez eta arratsaldez, osoko bilkura egin du Akademiak, Urnietako Udaletxean. Arratsaldeko saioa amaitu eta gero, ageriko bilkura hasi da Lekaio Kultur Etxean. Florentino Ugalde alkateak ongietorria egin die bertaratutakoei eta, ondoren, Udalaren izenean, Plazido Muxika omentzeko antolatu diren ekitaldietan parte hartu dutenei oroigarri bana eman. Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutiak hartu du hitza.

Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordeko kideak, “Zertzelada batzuk Plazido Muxikaren bizitzaz” izeneko hitzaldia eman du.



Urnietako Lekaio Kultura Etxea, 2006-IV-27. Ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Mujika, Andres Urrutia eta Florentino Ugalde

Sariak emateko proposamenak

Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutzak, urtero bezala, aukera eman diote Euskaltzaindiari aurten ere 2006ko Humanitate Sarirako hautagaia aurkezteko. Euskaltzaindiak, Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoa aurkeztu du sari horretara.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Kutzak urtero ematen duten “Euskal herritar unibertsala” 2006 urteko sarirako, Jose Maria Setien Alberro jauna aurkeztu du Akademiak.

35 euskaltzain urgazle berri

Maiatzaren 26ko osoko batzarrean, 35 euskaltzain urgazle izendatu ditu Euskaltzaindiak. Hona hemen horien izenak:

Alberdi, Dorleta; Aleman, Sagrario; Apalategi, Ur; Aranbarri, Iñigo; Aranberri, L. Alberto “Amatiño”; Artola, Xabier; Bijueska, Josu K.; Bujanda, Mikel; Coyos, Jean-Baptiste; Dufau, Agnès; Egaña, Andoni; Epaltza, Aingeru; Erdozia, Jose Luis; Etxebarria, Jose Ramon; Galé, Patxi; Gartzia, Prudentzio; Gómez, Ricardo; Gorrotxategi, Joakin; Ibisate, Angel; Iturbe, Jacinto; Iturralde, Joxemari; Jorajuria, Pello; Juaristi, Felipe; Kasares, Paula; Kruzeta, Odile; Laka, Itziar; Meabe, Miren Agur; Mintegi, Laura; Mujika, Alfontso; Oregi, Eneko; Pérez Gaztelu, Elixabete; Sarraillet, Jakes; Soulé, Bernadett; Zabaleta, Josu; Zubiri, Juan Jose.



Euskaltzaindiaren egoitza, 2006-VII-13. Euskaltzain urgazle izendatu berriei diploma emate-ekitaldia.

Uztailaren 13an, egoitzan antolatutako bilkura berezian, euskaltzain urgazle berri hauei diplomak eman zaizkie.

Ageriko bilkura Elantxoben

Maiatzaren 26an, Elantxobeko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Bizkaiko herri horretan, hiru idazle elantxobetarren omenez: Andima Ibinagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria. Hiruren omenez, San Nikolas elizaren eta pilotalekuaren arteko horman, plaka bat jarri dute bi erakundeek. Honela dio plakak: “Euskaltzaindiak eta Elantxobeko Udalak Andima Ibinagabeitia (1906-1967), Imanol Berriatua (1914-1981) eta Gorgonio Renteria (1868-1940) euskal idazle elantxobetarrei. Elantxobe, 2005-V-26”.

Plaka jarri ostean, San Nikolas elizan izan dira hitzaldiak. Amaia Eiguren alkatea eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote ekitaldiari eta ondoren hizlarien txanda izan da: Txomin Peillenek -“Andima adiskidea”-, Bernardo Atxagak -“Andimaren itzulpen bat eskuan”-, Xabier Kintanak -“Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren ereile”- eta Igone Etxebarriak -“Gorgonio Renteria, idazle”- hitz egin dute.

Bestalde, Andres Urrutiak irakurri du Andimaren iloba den Miren Lore Mentxaka Ibinagabeitiak Caracasetik bidali duen mezua, Elantxoben egun horretan irakurtzeko berariaz idatzia.



Elantxobe, 2006-V-26. Andres Urrutia euskaltzainburua eta Amaia Eiguren alkatea omenduen oroimenezko plaka agerian jartzen.

Euskararen Erakunde Publikoa

Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoaren buruak, sortu den Adituen batzordean euskaltzainak ere izango direla jakinarazi dio idatziz Euskaltzaindiari, eta horiek izendatzea eskatu. Zuzendaritzak, Iparraldeko euskaltzain hauek izendatu ditu: Jean Haritschelhar, Piarres Xarritton, Txomin Peillen eta Beñat Oihartzabal.

Euskaltzaindiaren Arautegi aldaketa onartu

Ekainaren 16an, Espainiako Ministro Kontseiluak, Akademiak proposatutako Arautegi aldaketa onartu du. Arautegi berria indarrean jarri da, uztailaren 14an Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOEn) argitaratu ondoren.

Pasiotarren Eubako ikastetxeak 50 urte

Sustapen batzordeak Euban egin du ekaineko bilera, hilaren 9an, Pasiotarren Ikastetxearen 50. urteurrena ospatzen dela eta. Bilera ondoren, Pasiotarren Ikastetxearen historia biltzen duen erakusketa ikusi dute batzordekideek. Horrez gain, Pasiotarrek antolatutako ospakizunean izan dira eta Andres Urrutia batzordekide eta euskaltzainburuak hitz batzuk esan ditu ekitaldiaren hasieran.

Ageriko bilkura Zaldibian

Ekainaren 30ean, Zaldibiako Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Frantzisko Ignazio Lardizabalen jaiotzaren bigarren mendeurrenean. Bilkura hasi baino lehen, Lardizabalen jaiotetxean, Zubiaurren, harrizko plaka bat jarri da agerian. Honela dio plakak: *“Frantzisko Ignazio Lardizabalen jaiotzaren (1806-1855) bigarren mendeurrena. Zaldibia, 2006-VI-30”*.

Ondoren, herriko Antzokian izan da ekitaldia. Patxi Aierbe alkatearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzak entzun ostean, Mikel Zalbidetik -“Lardizabalen Gramatika bere gizarte-giroan”- eta Beñat Oihartzabalek -“Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak”- hitzaldi bana eman dute.



Zaldibia, 2006-VI-30. Frantzisko Ignazio Lardizabalen jaiotetxearen aurrean.

Euskaltzain emerituak izendatu

Arautegiaren aldaketa BOEn (*Boletín Oficial del Estado*-n) uztailaren 14an argitaratu ondoren, Euskaltzaindiak historian lehenbiziko aldiz euskaltzain emerituak izendatu ditu, uztailaren 21ean Antzuolan egindako hileko batzarrean. Emeritu izateko, 75 urte beteak izan behar dituzte euskaltzain osoek. Hauek dira emeritutasuna aitortu zaien euskaltzain osoak: Xabier Diharce "Iratzeder", Piarres Charritton, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Antonio Zavala eta Jose Antonio Arana Martija.



Antzuola, 2006-VII-21. Ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Arana Martija, Jean Haritschelhar, Pierre Charritton, Emile Larre eta Antonio Zavala.

Mendaur bilduma

Ekainaren 20an, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, *Mendaur* bildumaren eta horren I. liburukiaren aurkezpena egin da: *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Andres Iñigok prestatua.



Iruñea, 2006-VI-20. Ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Pedro Pegenaute eta Andres Urrutia.

Mendaur bildumaren lehen bi liburukiak hauek dira: *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* eta *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Pello Salaburuk prestatua. Bilduma hau Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sortu dute, bi erakundeen arteko hitzarmenaren eraginez.

Nafarroa Oinez-ekin, Beran

Aurreko urteotan bezalaxe, aurten ere *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak eta Beran hainbat ekitaldi burutu ditu urriaren 6an, goizez eta arratsaldean. Goizean, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak ohiko bilera egin du eta arratsaldean, aldiz, Sustapen batzordearen bilera. Bestalde, eguerdian, 2006ko *Nafarroa Oinez* antolatzen duen *Labiaga* Ikastola bisitatu dute euskaltzainek.

Ageriko bilkura ere egin du Akademiak, Berako Kultura Etxean. Maider Senper, Labiaga ikastolako zuzendariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote ekitaldiari eta ondoren Patri Arburua, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikariak –“Bortzirietako euskararen bilakaera eta egungo egoera”-, Joxan Oiz, Labiaga ikastolako irakasleak –“Labiagak Laruni itzala egin zionekoa”- eta Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak –“*Bera* herri izena”- hitzaldi bana eman dute. Bestalde, Andres Urrutiak *Eliza eta euskara, Jagon Jardunaldien txostenak* liburua aurkeztu du eta ikastolako ikasleek bi kanta eskaini dituzte. Azken hitzak, Jon Abril Berako alkateordeak esan ditu.



Bera, Labiaga Ikastola, 2006-X-6.

R. M. Azkue Ikastola legeztatu zeneko 40. urteurrena

Urriaren 27an, R. M. Azkue Ikastola legeztatu zeneko 40. urteurrena ospatu du Euskaltzaindiak Bilbon, ageriko bilkura eginez. Azkue Ikastola, gaur egun Lauro Ikastola dena, bi hizkuntzatan -gazteleraz ez ezik, euskaraz ere- irakasteko legeztatu zen lehen ikastetxea izan zen, Estatu osoan. Legeztatze hori, Euskaltzaindiaren babesarekin lortu zuen.



Egoitza, 2006-X-27. Ezkerretik eskuinera: Jaime Martinez, Pedro Aranburu, Andres Urrutia, Ignacio Etxebarria eta Xabier Kintana.

Hau izan da ekitaldi horren egitaraua:

- Andres Urrutia euskaltzainburuaren ongietorria.
- Ignacio Etxebarria Lauro Ikastolako presidentearen agurra.
- Jaime Martinez Lauro Ikastolako zuzendaria: “Euskaltzaindia eta Lauro ikastola: euskararen aldeko 50 urteko kidetasun ibilbidea”.
- Pedro Aranburu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentearen hitzak.

Kudeatzailea eta idazkariordea berretsi

Indarrean jarri berri diren Arautegi eta Barne Erregeletako artikulak kontuan izanik, Kudeatzaile eta Idazkariordearen izendapenak berretsi egin ditu Zuzendaritzak, irailaren 28ko bileran. Juan Jose Zearreta da kudeatzailea eta Pello Telleria idazkariordea.

Habana eta Panamako Unibertsitateetako ordezkariekin

Urriaren 17an, Habana eta Panamako Unibertsitateetako hiru ordezkari izan dira egoitzan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bidez etorriak: Rogelio Rodriguez, Margarita Rodriguez eta José Baujín, hizkuntzalaritza eta hizkuntza politikaren alorrean ari direnak. Xabier Kintana idazkariak egin die harrera, egoitza erakutsi eta Akademiaren berri emanaz.

Izendapenak

Eusko Jaurlaritzak duen Euskal Kultura Kontseiluko kide izateko Patxi Salaberri izendatu da azaroan.

Donostiako Udalak sortu berri duen Kultur Kontseilurako, Ana Toledo izendatu da.

Pilar Artzari zilarrezko domina

Azaroaren 24an, egoitzan egin den osoko batzarrean, Andres Urrutia euskaltzainburuak Akademiaren zilarrezko domina eman dio Pilar Artza Euskaltzaindikoko langileari, Euskaltzaindian 25 urte lanean aritu ondoren.



Egoitza, 2006-XI-24. Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Pilar Artza eta Xabier Kintana

I.2.- BATZAR BEREZIAK

Ana Toledo euskaltzainaren sarrera-ekitaldia

Uztailaren 21ean egin da Ana Toledo euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia, Antzuolako Udaletxean. Juan San Martin zenaren lekua bete du Toledok Euskaltzaindian.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, hasieran Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatearen eta Andres Urrutiaren hitzak entzuteko parada izan da bai eta Xabier Kintana idazkariarenak ere.

Adolfo Arejita eta Jose Luis Lizundia euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Ana Toledo eta *Musen arnasatik. Goi-arnasara, euskal letretan barrena* izeneko sarrera-hitzaldia irakurri du. Hitzaldi horretan, euskara idatziaz eta euskal literaturaren historiaz jardun du eta bost mendetan zehar irakurlearengana euskaraz zuzendu diren idazleak izan ditu hizpide. Ondoren, Jean Haritschelharrek eman dio erantzuna euskaltzain berriari.

Hitzaldiak amaitzean, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoari dagozkion agiria eta diploma emanetz, besarkada eman dio; elkartasunezko erakuspen hau beste euskaltzain guztiek ere egin diote Antzuolako euskaltzainari. Horren guztiaren ostean, oparia egin dio Toledori Jose Angel Zabalok, Antzuolako Udalaren izenean: herriko bandera eta oroigarria.



Antzuolako Udaletxea, 2006-VII-21. Ana Toledo sarrera-hitzaldia irakurtzen.

Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzainaren sarrera-ekitaldia

Irailaren 29an egin da Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Uxueko pilotalekuan. Patxi Ondarra zenaren lekua bete du Salaberrik Euskaltzaindian.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, Maria Jesús Zoroza Uxueko alkatearen ongietorria eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurra entzun dituzte bertaratutakoek. Jarraian, Xabier Kintana idazkariak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu

du eta ondoren Ana Toledo eta Patxi Zabaleta euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Patxi Salaberri *Uxueko izenak mintzagai* izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Andres Iñigo Iturengo euskaltzainak erantzun dio, *Hamahirugarrena Uxuekoa, Erriberriko Merindadekoa* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldia amaitzean, euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute besarkada emanaz. Amaitzeko, uxuetarren izenean, María Jesús Zoroza alkateak plaka bat oparitu dio. Honela dio plakak: *El Ayuntamiento de Ujué a D. Patxi Salaberri, nuevo académico de Euskaltzaindia. Ujué, 29-09-2006 / Uxueko Udalak Patxi Salaberri jaunari, Euskaltzaindian sartu den egunean. Uxue, 2006-09-29*. Bestalde, eskolako haurrek *Grunegilda* izeneko dragoia aurkeztu diote Patxi Salaberriri. Horrek, bere sabelean toponimo asko gordetzen ditu. “Tori, Patxi, lan ederra egin dezazun”, esan diote euskaltzain berriari.



Uxueko pilotalekua, 2006-IX-29. Patxi Salaberri sarrera-hitzaldia irakurtzen.

I. 3. KANPOKO JARDUERAK

II Congreso de l’Aragonés

Lehenengo Biltzarra 1987. urtean egin ondoren, aurtengo uztailaren 13tik 15era bitartean ekin diote bigarrenari, “Chuntos por l’Aragonés” elkarteak antolatuta. Euskaltzaindiaren izenean Henrike Knörr Iker sailburua eta Xabier Kintana idazkaria egon dira bertan. Gainera Knörr jaunak honako hitzaldia eman du: “El proceso de estandarización del euskera y los trabajos de la Real Academia de la Lengua Vasca”.

Euskaltzaindia Ondarroan

Urriaren 20an, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordea Ondarroan bildu da, Udalak gonbidaturik, herri horretan Lore Jokoak ospatu baitituzte Augustin Zubikarai ondarroar eta ohorezko euskaltzain zenaren omenez. Batzordeak hileroko bilera egiteaz gain, Patri Urkizu batzordekideak *Augustin Zubikarai (1914 – 2004) & Euskal Teatroa* izeneko hitzaldia eman du.

Toponimiari buruzko jardunaldia

Eusko Jaurlaritzak antolaturik, azaroaren 16an, "Euskal Herriko toponimiari buruzko jardunaldia" egin da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Jardunaldi horretan hitzaldi bana eman dute Onomastika batzordeko Mikel Gorrotxategik - "Toponimia ikerketak"- eta Patxi Galék - "Toponimoen hizkuntza-normalizazioa"-.

Juan San Martin, Eibarko seme kutun

Azaroaren 17an, Juan San Martin zena “seme kutun” izendatu du Eibarko Udalak. Andres Urrutia euskaltzainburuak parte hartzeaz gain, Akademiak egun berean honako bilkura hauek egin ditu: Onomastika batzordekoa, Corpus batzordekoa eta Euskalkien lantaldekoa.

Bartzelonako “Liburuaren Erakusketa”n

Euskaltzaindia, Institut d’Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakustoki berean izan dira Bartzelonako “Liburuaren Erakusketa”n. Azaroaren 21ean hasi eta 26ra arte iraun duen Bartzelonako “Liburuaren Erakusketa” irakurle eta erosleei dago zuzendua, eta saltzaile eta erosleen arteko harremana sendotzea du helburu. Euskaltzaindiko Argitalpen Zerbitzuko langile bi -Ricardo Badiola argitalpen eragilea eta Jon Artza argitalpen banaketako arduraduna- izan dira bertan Euskal Akademia ordezkatzuz. Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko hiru erakunde hauek liburu azoka batera elkarrekin doazen laugarren urtea da hau.

Lardizabalen Gramática vascongada-ren facsimilearen aurkezpenean

Abenduaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Frantzisko Ignazio Lardizabalen *Gramática vascongada*-ren facsimile edizioa aurkeztu du eta Euskaltzaindia gonbidatu ekitaldi horretara. Argitalpenean parte hartu dute Beñat Oihartzabal eta Mikel Zalbide euskaltzain osoek eta Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazleak.

Institut d'Estudis Catalans-en egoitzan

Abenduaren 15ean, Henrike Knörr Iker sailburuak hitzaldia eman du Bartzelonan, Institut d'Estudis Catalans-en Secció Filològicaren osoko batzarrean. Institut d'Estudis Catalans erakundeak ehun urte bete dituen honetan, bere Secció Filològicak Estatuko Hizkuntza Akademiak gonbidatu ditu, euren lanaren berri eman dezaten. Euskaltzaindia izan da azalpen horiek eman dituen lehen Akademia.

I.4. EUSKALTZAINDIA ERAKUNDEETAN

Euskaltzaindiak erakunde batzuen hainbat ataletan parte hartzen du. Ondoren, erakunde eta atal horiek zeintzuk diren, batetik, eta ordezkariak nortzuk diren, bestetik, zehazten da:

Erakundea	Ordezkaria
Hezkuntza Ministerioaren Biblioteka Nazionala	Euskaltzainburua
Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea	Euskaltzainburua
Nafarroako Euskara Kontseilua	Euskaltzainburua eta Nafarroako ordezkaria
EiTBko Administrazio Kontseilua	Jose Luis Lizundia
Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanak	Henrike Knörr
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko EIMA programa	Joxe Ramon Zubimendi
Eusko Jaurlaritzako Toponimia Batzordea	Jose Luis Lizundia eta Mikel Gorrotxategi
Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordea	Andres Urrutia
Fundación Germán Sánchez	Jose Antonio Arana
HABE	Andres Iñigo
Gasteizko Plan Estrategikoaren Batzordea	Arabako ordezkaria
Kulturako Ministerioako Kixoteren IV. Mendeurreneko Batzordea	Euskaltzainburua
Euskararen Erakunde Publikoan Adituen Batzordea	Jean Haritschelhar, Piarres Xarriton, Txomin Peillen, Beñat Oihartzabal
Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Kontseilua	Patxi Salaberri
Donostiako Udalaren Kultura Kontseilua	Ana Toledo

I.5. HERIOTZAK

Patxi Altuna euskaltzain osoa

Patxi Altuna Bengoetxea euskaltzain osoa urtarrilaren 20an hil da Loiolan, 78 urte zituela. Patxi Altuna Azpeitian jaio zen, 1927an. Apaiz jesuita zen. Filosofia, Teologia eta Ikasketa Klasikoak egin zituen. 1976tik jubilatuta arte, irakasle izan zen Deustuko Unibertsitatean, Bilboko eta Donostiako campusetan. Jubilatuta ostean, 2001ean, Loiolako Artxibo Historikoaren arduradun izendatu zuten.

Euskaltzain oso, 1980az geroztik. Urte askotan zehar, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeburua izan zen, harik eta 2005ean, batzorde horretako ohorezko buru izendatu zuten arte. Euskara Batuko batzordeko kidea ere bazen.

Gaizka Barandiaran euskaltzain urgazlea

Gaizka Barandiaran Balantzategi euskaltzain urgazlea uztailearen 20an hil da, Loiolan, 90 urte zituela. Dantza irakasle, etnologo, euskaltzale eta jesuita izan zen Barandiaran. Internacional Folk Music Council eta Ethnomusicology, Bloomingtoneko (Connecticut) Unibertsitateko erakundeetako kidea. *The New Grown Dictionary of music and musiciens* liburuan, Euskal Herriko musika tresnak eta dantzak zehaztasun handiz azaldu zituen, *Basque Musica* ezizena erabili zuelarik. Euskaltzain urgazlea zen, 1961eko abuztuaren 25ean izendatua.

Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi" euskaltzain urgazlea

Jose Mari Etxaburu Etxaburu, "Kamiñazpi" euskal idazle eta euskaltzain urgazlea abenduaren 28an hil da, 93 urte zituela.

Jose Mari Etxaburu Ondarroan jaio zen, 1913ko irailaren 23an. Hogei urte zituela, herriko berriak idazten hasi zen *Ekin* aldizkarian. Beste aldizkari askotan ere argitaratu zituen bere lanak. Euskaltzain urgazlea zen, 1966ko azaroaren 25ean izendatua.

I. 6. HILBERRI-TXOSTENAK

Urtarrilaren 27an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Bertan, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Juan San Martin

Euskaltzain osoa (1922-2005). Omenezko txostena Jose Luis Lizundiak egin du.



Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2006-I-27. Ezkerretik eskuinera: Jose Mari Iriondo, Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia, Andres Iñigo eta Paulo Agirrebaltzategi.

Eugenio Agirretxe

Ohorezko euskaltzaina (1920-2005). Omenezko txostena Paulo Agirrebaltzategik egin du.

Patxi Ondarra

Euskaltzain osoa (1925 – 2005). Omenezko txostena Andres Iñigok egin du.

Jose Mari Aranalde

Euskaltzain urgazlea (1933-2005). Omenezko txostena Joxe Mari Iriondok egin du.

Bestalde, ekainaren 29an, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako campusean EUTGn, hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Juan Mari Lekuona

Euskaltzain osoa (1927-2005). Omenezko txostena Ana Toledok egin du.

Patxi Altuna

Euskaltzain osoa (1927-2006). Omenezko txostena Miren Azkaratek egin du.



Donostia, 2006-VI-29. Ezkerretik eskuinera: Ana Toledo, Andres Urrutia, Jose Maria Guibert eta Miren Azkarate.

I. 7. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Jokin Zaitegiren aldeko omenaldian

Irailaren 21ean, Arrasateko Udalak Jokin Zaitegi omendu du, haren jaiotzaren mendeurrenean, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaltzaindiaren partaidetzarekin. “Etxe honetan bizi izan zen Iokin Zaitegi, 1906-1979. Arrasateko ume kuttun, euskaltzale eta euskal kulturaren bidegilea” dioen plaka jarri dute bera bizi izan zen etxean. Jose Luis Lizundia izan da Euskaltzaindiaren izenean eta hitzaldia egin du.

Beste ordezkapen batzuk

- Urtarrilaren 29an, Bilbon, Sabino Arana Kultur Elkargoak sari-ematea egin du eta Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria izan dira Euskaltzaindiaren izenean
- Otsailaren 19an, Bilbon, Nestor Basterretxearen eskultura inauguratu da, “Omenaldia, askatasun eta demokraziaren alde borrokatu ziren gizon eta emakumeei” dioena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren ekimenez. Andres Urrutia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Martxoaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundian egin den ekitaldian, Eusko Ikaskuntzak 2005eko Manuel Lekuona saria eman dio Elias Amezagari. Jose Luis Lizundia diruzaina joan da.
- Martxoaren 10ean, Usurbilen, Osinalde industrialdean egin den XII. CAF-Elhuyar zientzia eta teknologiaren dibulgazio-sarien banaketa ekitaldian Ana Toledo izan da.
- Martxoaren 16an, Bilboko Udalak Felipe Arrese-Beitia omendu du eta Andres Urrutia eta Adolfo Arejita izan dira.
- Martxoaren 18an, Euskal Kultur Erakundeak, Baigorriin egin duen ohiko batzar nagusian Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohia izan da.
- Martxoaren 24an, Santurtzin, bertoko Udalak antolatu duen ekitaldian, Andolin Eguzkitza zenaren bustoa jarri dute euskaltzain zenduaren izena daraman parkean. Ekitaldian, Xabier Kintana idazkaria eta Juanjo Zearreta kudeatzailea izan dira.
- Apirilaren 4an, Arabako Foru Aldundiak, Paulo Coelho idazleari eman dio “Araba bihotzean” I. saria. Sari-emate ekitaldira Henrike Knörr joan da.
- Apirilaren 4an, Guggenheim Bilbao Museoa egin den “Chillidaren omenez” erakusketaren inauguraziora Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren urteurrenean egin diren ekitaldietara Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina joan da.
- Apirilaren 28an, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko jaiak direla-eta, Arabako Foru Aldundiak egin duen harrera ofizialera Henrike Knörr joan da.
- Maiatzaren 5ean, MCC Zentro Kooperatiboak antolatuta, kontzertua izan da Euskalduna Jauregian, Fundazioaren 50. urteurrena ospatzeko. Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Maiatzaren 8an, Kultura Ministerioaren “Premios Nacionales de Literatura 2005” delakoan banaketa izan da, Santanderren. Henrike Knörr joan da.
- Maiatzaren 10ean, *Berria* berrituaren aurkezpen ekitaldia izan da Bilbon. Euskaltzainburua joan da.

- Maiatzaren 13an, Artaxoan, Jimeno Jurio II. sariaren banaketa egin da eta Andres Iñigo joan da.
- Maiatzaren 10ean, Andres Iñigo Iruñeko 'Zaldiko Maldiko' elkartean izan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 14an, Senperen egin den Herri Urrats-en jaialdira Andres Urrutia joan da.
- Maiatzaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Gizarte Segurantzza Sailak ematen duen "Manuel de Irujo Justizia Saria"ren banaketa egin da, Gasteizen, Lehendakartzaren egoitzan. Euskaltzainburua joan da.
- Maiatzaren 20an, Andres Urrutia euskaltzainburua joan da Bilbon egin den *Galeusca* itunaren aurkezpena
- Maiatzaren 23an, Euskal Herriko Unibertsitateak Joseph E. Stiglitz jauna "Doctor Honoris Causa" izendatu du Sarriko eta Henrike Knörr joan da.
- Maiatzaren 27an, Tafallako Euskararen Egunaren inaugurazio-ekitaldia ospatu da, eta Patxi Salaberri euskaltzaina joan da.
- Maiatzaren 27an, Izaban ospatu den Uskeraren Egunera Andres Iñigo joan da.
- Maiatzaren 28an, Elorrion, Ibilaldia -Bizkaiko Ikastolen festa- egin da. Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia joan dira.
- Ekainaren 3an, Lizarran egin den VI. Manuel Irujo Sariaren emate-ekitaldian Jean Haritschelhar, Andres Iñigo eta Henrike Knörr izan dira.
- Ekainaren 4an, Euskal Eskola Publikoaren XV. Jaia ospatu da Oñatin. Henrike Knörr joan da.
- Ekainaren 8an, OLBE/ABAOk 2006-2007ko Opera denboraldiaren aurkezpena egin du Euskalduna Jauregian. Adolfo Arejita joan da.
- Ekainaren 18an, "Aterpe 1936" elkarteak antolatuta, Bilbon, Artxandan, 1936ko Gerran hil zirenen aldeko monumentua inauguratu da eta Xabier Kintana idazkaria joan da.
- Ekainaren 20an, JAKIN bilduma osoaren digitalizazioaren aurkezpen ekitaldira Andres Urrutia euskaltzainburua, Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea joan dira.
- Ekainaren 24an, Altsasun, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak Bertsozale Elkartearekin batera antolatutako 18. txapelketaren finalera Andres Iñigo joan da.
- Ekainaren 29an, Loiolako San Ignazioaren heriotzaren 450. urteurreneko gorazarre-ekitaldian Jose Luis Lizundia diruzaina izan da.
- Uztailaren 4an, Donostian, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako XXV. Uda Ikastaroen irekiera ekitaldian Ana Toledo izan da.
- Uztailaren 10ean, Baionan, Udako Euskal Unibertsitatearen 34. Ikastaldiaren sarrera-ekitaldia izan da, eta Beñat Oihartzabal buruordea joan da.
- Uztailaren 14an, Bilbon, "Fête Nationale de la République Française" delakora joan da Adolfo Arejita.
- Uztailaren 17an, Iruñean, Udako Euskal Unibertsitatearen sarrera-ekitaldira Andres Iñigo joan da.
- Uztailaren 27an, San Ignazio eguna dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko gizartearen ordezkariari egin dien harrera ofizialean Andres Urrutia izan da.
- Uztailaren 31n, San Ignazio egunean, Sabin Etxean egin den ospakizunera Andres Urrutia joan da.

- Irailaren 15ean, Koldo Mitxelena Kulturunean, *Auspoa* bildumako 300. zenbakia aurkeztu da. Andres Urrutia euskaltzainburua, Henrike Knörr Iker sailburua eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea joan dira.
- Irailaren 16an, Ikastolen Elkarteak Zamudion egin duen 2006-2007 ikasturtearen hasiera-ekitaldira Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundia joan dira.
- Irailaren 19an, “Hamaika, telebista hedatzeko taldea”ren aurkezpenera Andres Urrutia eta Xabier Kintana joan dira.
- Irailaren 19an, Bilbon, Aragoiko Gobernuak Zaragozaren turismo-bideak aurkeztu ditu. Xabier Kintana izan da.
- Irailaren 22an, Azpeitiko Udalak enpresen hizkuntza-kudeaketarako zentroa aurkeztu du, eta Andres Urrutia euskaltzainburua izan da.
- Irailaren 26an, Deustuko Unibertsitateak 2006-2007 ikasturtearen hasiera-ekitaldia ospatu du Donostian eta Andres Urrutia izan da.
- Urriaren 1ean, “Kilometroak 2006” egin da Oiartzunen. Ana Toledo joan da.
- Urriaren 2an, Bilbon, Ludger Mees-en: *El profeta pragmático. Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)* liburuak aurkeztu da. Henrike Knörr joan da.
- Urriaren 5ean, Eibarren Udako Euskal Unibertsitateak 2006-2007 ikasturtearen inaugurazio-ekitaldia egin du, eta Jose Luis Lizundia joan da.
- Urriaren 9an, Gasteizen egin da José Santos de la Iglesiaren *Valdeón. Un fragor de vida en los Picos de Europa* liburuaren aurkezpenera Henrike Knörr joan da.
- Urriaren 9an, Andres Urrutia euskaltzainburua Bilbon dagoen Euskararen Etxean izan da, hor inauguratu duten Unibertsitateko euskarazko liburuen erakusketa egonkorrean.
- Urriaren 10ean, 2006ko Humanitate saria eman dute Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak Donostian. Ana Toledo joan da.
- Urriaren 15ean, Nafarroa Oinez-06 ospatu da Beran eta Andres Iñigo joan da.
- Urriaren 26an, bilkura egin du Euskararen Erakunde Publikoak Baionan. Beñat Oihartzabal joan da Euskaltzaindiaren ordezkari gisa.
- Urriaren 29an, Bilboko Arriaga Antzokian, Ramón Rubialen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko egin den ekitaldian Xabier Kintana idazkaria izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 30ean, Pio Barojaren heriotzaren 50. urteurrena dela-eta, haren izena daraman plazan Bilboko Udalak antolatu duen ekitaldian parte hartu du Andres Urrutia euskaltzainburuak, Pio Barojaren testu bat irakurritz.
- Azaroaren 3an, 2006ko Juan Zelaia Sariaren irabazlea iragarri da Iruñean. Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria joan da.
- Azaroaren 4an, Otxandioko Udalak antolatu duen Felipe Arrese Beitiaren *Santugiñe* obraren antzezte-ekitaldira Henrike Knörr Iker sailburua joan da.
- Azaroaren 7an, Gasteizko Artium Museoa, harrera-ekitaldia egin du Arabako Foru Aldundiak. Henrike Knörr joan da.
- Azaroaren 15ean, “2006ko Euskal Herritar Unibertsala” sari ematea egin da Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzan. Henrike Knörr izan da.
- Azaroaren 16an, *Berria*-ren *Estilo* liburuaren aurkezpenera egin dute Euskaltzaindiaren egoitzan. Andres Urrutia izan da.
- Azaroaren 18an, *Nafarroa Oinez 2007* festaren aurkezpenera, Andres Iñigo izan da, Bianan.
- Azaroaren 22an, Bilbon, Galindez-i buruzko erakusketa inauguratu du Sabino Arana Fundazioak. Andres Urrutia joan da.

- Azaroaren 23an, *Jakin* aldizkariaren 50. urteurreneko ekitaldian Ana Toledo izan da.
- Azaroaren 27an, Bilbon, Euskal Y trenbide-sare berriaren komunikazio-kanala aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak. Jose Luis Lizundia izan da.
- Azaroaren 29an, Donostian, *unibertsitatea.net* atariaren aurkezpenean Ana Toledo izan da.
- Azaroaren 29an, “Euskal Herriko Komunikazio Aurreratuen Sarearen aurkezpena” egin dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Bilbon. Xabier Kintana izan da.
- Abenduaren 1ean, Bizkaiko Foru Aldundiak aurtengo Lauaxeta Saria Eubako Orue auzoko Pasionisten Alkarteari eman dio. Juanjo Zearreta kudeatzailea joan da.
- Abenduaren 1ean, 2006ko Anton Abbadia saria eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian. Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da.
- Abenduaren 13an, Bilboko Udalak “bilbotar ospetsu” izendatu ditu zazpi pertsona eta elkarte. Adolfo Arejita izan da.
- Abenduaren 16an, Azkoitiko Insausti Jauregian, ekitaldi akademikoa egin du Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak. Euskaltzaindiaren ordezkaria Andres Urrutia izan da, hitzaldia eginez.
- Abenduaren 16an, Leioako Betiko Ikastolak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako instalazioen aurkezpena egin du eta Xabier Kintana joan da.
- Abenduaren 18an, Mungiako Udalak “Etxe bat Olentzerorentzat” baserria aurkeztu du. Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta izan dira.
- Abenduaren 21ean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak euskal gizartearen ordezkariari harrera eskaini die. Ana Toledo joan da.
- Abenduaren 27an, Elorrioko Udaletxean *Elorrioko toponimia* liburua aurkeztu da. Jose Luis Lizundia joan da.
- Abenduaren 27an, 2006ko Gipuzkoako Urrezko Domina ematea egin da Donostian. Ana Toledo eta Henrike Knörr joan dira.
- Abenduaren 28an, Altsasuko Iortia Kulturagunean, Jose Luis Erdoziaren *Altsasuko euskara* liburua aurkeztu da, eta Andres Iñigo eta Patxi Salaberri izan dira Euskaltzaindiaren izenean.

II. AKADEMIA JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutu etako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2006an egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batua	10
Gramatika	9
Dialektologia-Atlasa	18
Onomastika	17
Exonomastika	12
Herri Literatura	10
Literatura Ikerketa	11
Euskara Batua	(*)
Corpus	6
Euskalkiak	5
Sustapen	7
Argitalpenak	1
Azkue Biblioteka	2
X. Jagon Jardunaldia	1
GUZTIRA:	109

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hiztegegintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegia*-z gain Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

II.1.1 EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegia amaitu ondoren, Akademiak, *Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - 1. itzulua - Adierak eta adibideak)* izeneko hiztegia egitea erabaki du. Hiztegi horren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen Hiztegi Batua izango da, lehen itzulian argitaratutako hitzak. Hasiera eman zaio hiztegi horri, eta A – Az arteko lehen idatzaldia burutu da, zuzendu gabe, oraindik.

Orotariko Euskal Hiztegiako zenbait atal eguneratzen ere jardun da lantaldeak, eta osatze-lan hori baliagarria izango da *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egiteko. As – Baiz artean osatu eta eguneratu da, eta An – As artekoa zuzendu.

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hauez gain, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzkoa osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batua-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 22.736 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara, atalez atal. Eta 2000n, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Hitzen azterketa

Hiztegi Batuko lantaldeak, *txikizkari* eta *zurmur* arteko formak aztertu ditu aurtan. Batetik, euskaltzainek bigarren itzulikoak aztertzerakoan proposatu dituzten forma berriak lantzen eta, bestetik, lantaldeak berak konpondu gabe utziak txukuntzen jardun du.

Erabaki gabeko formak dira ia denak. Horietako batzuk Euskaltzaindiak nahiz euskaltzainek aipatu dituzte bigarren itzulikoak erabakitzean:

- adib., *unai-praka* ageri da *bakero* sarrerari egindako oharretan.
- *zaingune* aipatu zen *anbulategi* eztabaidatzean.
- edo *zoi* ordaina *adobe* eztabaidatzean.
- *zerbitzu libre* sinonimoa erantsi zion Euskaltzaindiak *autozerbitzu* sarrerari.

- etab.

Iritzi-emaileek proposatuak dira beste batzuk, edo lantaldeak berak konpondu gabe utziak bigarren itzuliko saioetan; eta badira formaz forma landu beharrean multzo baten barruan ikusi beharrekoak.

Atera dituen ondorioak, berriz, bigarren itzuliari dagokion dokumentuan txertatu ditu, eta, ondorioz, dokumentu berean iritsiko zaizkie denak, bai iritzi-emaileei eta bai euskaltzainei.

Multzoka aztertu beharrekoak

Hiztegi Batuko ohiko aztergaia amaitu ondoren, multzoka landu beharreko formak aztertzeko adierazi dio Euskaltzaindiak lantaldeari. Oinarrizko sailkapena egin ondoren (taula periodikoa, aro eta aldi geologikoak, zientzia-unitateak, familia-loturen adierazleak, etab.) familia-loturen adierazleak aztertzeari ekin dio lantaldeak.

Irizpena

Euskaltzaindiak eskatuari erantzunez, "Irrati-telebistako glosarioa" izeneko txostena aztertu du lantaldeak, planteaturiko hitzei buruzko iritzia emanez. Hitz eta esamolde sorta hori Euskal Irrati Telebistak aurkeztu dio Euskaltzaindiari, iritzia eskatuz.

Arauk

Euskaltzaindiak, urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan, Hiztegi Batuko honako hitz-zerrenda hau onartu du: *ez - ezuste*

UZEIrekiko lankidetza

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2006an ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek egin ditu Akademiarentzat:

- Hiztegi Batuko lantaldeak lehendik erabaki gabe utzitako formak eta euskaltzainen oharrak direla eta: a) *T, U, X, Y* eta *Z* letretako aktak aztergai osoan txertatuz. b) Horiek osatzeko, aurretik *Z* letra osatu, bateratu eta lehendik utzitako bi txosten.
- Hiztegi Batuko lantaldearentzat landu beharreko hitz-sail berriak (taula periodikoa, aro eta aldi geologikoak, zientzia-unitateak, familia-loturen adierazleak, etab.) prestatu eta horiei buruzko txostenak.
- Euskaltzainditik jasotako informazio-eskaerei erantzun: a) multzoka aztertu beharreko arazoei erantzuteko txostena prestatu. b) *E* letrako formei buruzko informazioa bildu eta moldatu. c) Euskaltzaindiak eskatutako beste txosten batzuk egin.
- "Irrati-telebistako glosarioa"ri buruzko irizpena prestatu ahal izateko, txostenak egin eta informazioa bildu.
- Euskaltzaindiak erabakiak hartu ahala, eta jakinarazi aurretik, erabaki horiek behar bezala txertatu zerrenda orokorrean: lan hori *C* eta *D* letretako forma ohardunen erabakietan eta *E* letrako oharrak gabeko formetan gauzatu da.

- Iritzi-emailei *G*, *H* eta *I* letretako zerrendak helarazi zaizkie eta haien oharrak jaso eta sistematizatu.
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoari (EEBSri) dagokionez, interneten dagoen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa etengabe eguneratu, Euskaltzaindiak hartutako erabakien arabera eta lantaldearen hileroko bileretako proposamenekin. 146 eta 148. arauak berrikusi dira, eta horren ondorioz egin beharreko eguneratzea egin da.
- Euskaltzaindiaren hileko osoko batzarretan Hiztegi Batuko lantaldeko arduraduna -eta UZEIko langilea- izan da.



Donostia, UZEIren egoitza, 2006-XI-10. Ezkerretik eskuinera: Juan Jose Zearreta, Miriam Urkia eta Imanol Urbieta.

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 2005era bitartean bederatzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) bigarrena lantzen ari da batzordea.

EGLU VII (Mendeko perpausak 3) liburua prestatzen

Menderakuntzari buruzko hirugarren liburuak (perpaus aditz jokatugabeei buruzkoak) izango dituen txostenen zerrenda egina du batzordeak eta erabakita dago horietako bakoitza zein batzordekidek egingo duen. Txosten hauen lehen idatzaldia egin da 2006an:

- *Denborazko perpausak*
- *Helburuzko perpausak*
- *Perpaus erlatiboak*
- *Kausazko perpaus jokatugabeak*
- *Perpaus jokatugabeak: osagarrien bereizgarriak*

Hizkuntza kontsultak

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da. Hona hemen Gramatika batzordeak eztabaidatutako galderetako batzuk:

- Aditz sasitrinko batzuez.
- *ARI IZAN / EGON* aditzen auziaz.
- *Bai ... -eLA* egituraren gainean.
- *Bart* nola deklinatu.
- Biderkatzeekin segituz, "taula" aipatzean, "5eko taula" ala "5aren taula"?
- Biderkatzen dugunean, "bostez"/"5ez" biderkatzen dugu ala "bostaz"/"5az"?
- *-eLA* menderagailudun osagarriak subjektu izan daitezkeen.
- 515 zenbakia "bostez" (ala "5ez")?
- *-eZ GERO* menderagailua egokia den honako perpaus honetan: *Hori eginez gero, nahita izango zen.*
- Karguen izenak (eta bestelako batzuk) izen berezien aurretik joan ote daitezkeen.
- Nola idatzi behar den zenbaki zatikiar hau: *ehunmilaren bat* ala *ehun milaren bat*.
- *-tzat* kasu-marka superlatiboekin: *nagusientzat / nagusienatzat dauka bere burua*
- *-tzea / -tzeke* eskatu.
- *Urtetan / urteetan*.
- *Zatekeen* bizkaieraz.

EGO egitasmoa (*Euskal Gramatika Orokorra*)

Honako lan hauek egin dira:

1. Lehenik, honako hauek eztabaidatu dira: gramatika horretan zer jaso nahi den eta orain arte egindako gramatikak nola egokitu behar liratekeen gramatika orokorrean txertatzeko.
2. *Gramàtica del català contemporani*-ko kapitulu guztien sarrerak irakurri eta aztertu dira.¹ Horiekin batera, euskaraz idatzitako zenbait lan ere, sintaxi aldetik interesa dutenak, aztertu dira.
3. *EGLU I, EGLU I* (Eranskina), *EGLU II, EGLU III, EGLU IV, EGLU V, EGLU VI* eta *EGLU* txikiko terminoak ACCESS programan jaso dira. Termino bakoitza nola agertzen den, non (liburua eta orrialdea), definizioa ematen den edo ez, dituen aldaerak (*ez jokatu, ez-jokatu, ezjokatu, jokatugabe...*), Euskaltzaindiko *Hiztegi Batuan* bildua den edo ez, eta, hala dagokionean, bakoitzari buruzko oharrak.
4. Liburu guztien eskema orokorra bildu da. Horrez gainera, leudekeen hutsuneak ere detektatu eta bete dira. Horrekin, osatua legoke EGOren lehenbiziko (behin-behineko) aurkibide osoa.

¹ *Gramàtica del català contemporani*, hauek zuzendua: Joan Solà, Maria-Rosa LLoret, Joan Mascaró eta Manuel Pérez Saldanya. Editorial Empúries, 2002.

II.3. DIALEKTOLOGIA

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 syntaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2006an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz

Laugarren koadernoko inkesten datuak sartu

2006. urtean 69 inkesta informatizatu dira:

- Araba (1): Aramaio
- Bizkaia (21): Amorebieta, Arrazola, Bakio, Bermeo, Berriz, Bolibar, Busturia, Elorrio, Errigoiti, Gizaburuaga, Ibarri, (Uribe)-Etxebarri, Kortezubi, Lekeitio, Lemoa, Lemoiz, Mendata, Ondarroa, Orozko, Zeanuri eta Zeberio.
- Gipuzkoa (8): Araotz, Arrasate, Ataun, Gatzaga, Hondarribia, Mendaro, Oiartzun eta Oñati.
- Nafarroa (14): Abaurregaina, Etxalar, Etxaleku, Ezkurra, Dorrao, Goizueta, Igoa, Jaurrieta, Leitza, Mezkiritz, Oderitz, Suarbe, Zilbeti eta Zugarramurdi.
- Lapurdi (12): Ahetze, Arrangoitze, Bardoze, Beskoitze, Donibane Lohizune, Hendaia, Itxasu, Makea, Mugerre, Sara, Senpere eta Uztaritze.
- Nafarroa Beherea (13): Arboti, Armendaritze, Arnegi, Arrueta, Baigorri, Bastida, Behorlegi, Bidarra, Gamarte, Irisarri, Jutsi, Larzabale eta Uharte-Garazi.

Bestetik, Zuberoako hiru herri hauetako zuzenketak sartu dira: Barkoxe, Eskiula eta Ürrüstoi.

Datuak landu

Arlo honetan urrats hauek egiten dira: lehenik mapak egin, berrikusi eta zuzendu; eta ondoren, datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin. Bostgarren liburukiko 134 mapa egin dira.

Datuen garraioa

Hirugarren liburukiari dagozkion datuak sistema zaharretik berrira garraiatzea bukatu da, eta laugarrenari ekin zaio.

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatu

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 24 deitura finkatu dira batzordean 2006an zehar.

Ponte izendegia osatu

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburua 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 31 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2006an.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Herri hauetako toponimia-ikerketak gainbegiratu ditu batzordeak: Andoain, Azkoitia, Erandio, Oiartzun eta Iruraitz-Gauna.

Herri hauetako toponimia-ikerketak aztertzeari ekin dio batzordeak: Arrieta, Etxebarri, Gautegiz-Arteaga, Gernika, Ibarrangelu, Leioa, Mungia, Urduña eta Zornotza.

Iparraldeko Toponimia lana aztertu da eta behin-behineko onarpena eman.

Onomastikako araugaiak prestatu

Batzordeak Arabako herri izendegiaren araugaia prestatu du, 110 izen onartuz: Aiaraldeko 14 herri- eta herritar-izen, Arabako lautadako 18, Mendialdeko 12, Arabako Errioxako 30, Añanako 20, Gorbeialdeko 12 eta Barrendegietako 4.

Udalen kontsultak

Lan hau, EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egina duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da.

Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: Arrieta, Astigarraga, Azkoitia, Bera, Doneztebe, Elizondo, Elortz, Eltziego, Erentxun, Ereño, Erriberagoiti, Eskoriatza, Esteribar, Etxebarri, Etxebarri-Ibiña, Gasteiz, Iruña, Gamiz, Gaubea, Gernika, Ihurre / Yurre, Jungitu, Komunioi / Comunión, Laudio, Legazpi, Legutio, Markina, Moreda, Urduña, Zangoza, Zegotia eta Zornotza. Guztira, 330 izen finkatu dira.



Eibar, 2006-XI-17. Ezkerretik eskuinera: Iratxe Lasa, Patxi Galé, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo, Elena Martinez de Madina eta Mikel Gorrotxategi.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Erakunde hauei erantzun zaie: Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitateko DEIKER, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskal Irrati Telebista.

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izen, leku-izen eta deiturez gain, herritarrek zuzenean (intenet bidez, gutunez eta ahoz) egindako kontsultei ere erantzun zaie.

Exonomastikako araugaiak prestatu

Araugai hauek prestatu ditu Exonomastika azpibatzenordeak:

- “Euskal Herri Inguruko exonimoak”
- *Montenegro (Crna Gora) Montenegroko Errepublika* izenaz erabaki-proposamena.
- “Frantziako Errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak” 36. arau eguneratua.
- “Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburu-izenak” 32. arau eguneratua.

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO)

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu da eta datuak jasotzen hasi.

Abiapuntua, *Nafarroako Toponimia* eta *Mapagintza* bildumak (59 liburuki) jasotzen dituen leku izenak izan dira eta horietan osatzen dute datu-basearen atalik

handiena (100.000 leku inguru), nahiz eta etorkizunean Euskal Herri osoko leku-izenak jasotzeko asmoa dagoen. Leku bakoitzaren izen arautuarekin batera, dokumentazioan nahiz ahozko bilketetan jasotako erak ere gorde nahi dira datutegian.

Behean zehazten diren mota ezberdineko izenak erregistratu dira 2006an zehar, datu-basean jasoaz:

Lekuak	795
Iturriak	1.165
Era dokumentalak	256.719
Informatzaileak	67
Ahozko lekukotzak	4.450

Egitasmo hau, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenean jarri dituen baliabideei esker gauzatu ahal izan da.

Gasteizko Toponimia lantaldea

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, lau ikerlariz osaturiko lantaldeak jardun du, Akademiak Gasteizen duen ordezkartzan, Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen, ondoren argitaratzeko.

II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen ari da: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seihun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturako batzordekoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epaimahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsoneri buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.5.1. HERRI LITERATURA

VIII. Herri Literatura Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2005eko azaroan egin ziren Jardunaldi horietako hitzaldiak *Euskera*, 2005, 2 zenbakian argitaratu dira.

Herri literaturaren arloan lanean

- Bi batzordekideek (Pello Esnalek eta Jose Mari Iriondok), Auspoa sailean argitaratu diren bi liburu hauetan parte hartu dute: *Egan dijoa* eta *Basarri I : bat-batean*.
- Antonio Zavala eta Jose Mari Iriondo batzordekideek *Mattin eta Salvador* liburua egin dute.
- Jose Mari Iriondo batzordekideak partaidetza zuzena izan du urrian Urepelen egin den *Xalbador egunaren* antolamenduan.

II.5.2. LITERATURA IKERKETA

Literatura Terminoen Hiztegia

Hiztegiari goitik beherako orraztaldia eman dio batzordekide batek, eta batzordeak banan-banan azertu ditu zuzentzailearen proposamenak eta dagokion erabakia hartu du. Ondoren, originala bukatutzat eman du batzordeak, inprimategirako prest utziz.

Epaimahaikideak proposatu

Literatura-sari hauetan epaimahaikide izateko izen-proposamenak egin dizkio Euskaltzaindiari batzordeak:

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2006an antolatu dituzten sari hauetan: Txomin Agirre eleberria, Toribio Alzaga antzerkia, Felipe Arrese

Beitia olerkia, Mikel Zarate saioa, eta Gazteentzako Azkue Sarietako A eta B arloak.

- Kultura Ministerioak 2006an antolatu dituen Sari Nazionaletan: Olerkia, Narratiba, Saiakera, Antzerkia eta Haur Literatura.

Leturiaren egunkari ezkutua (1957-2007)

Batzordeak egitarau zehatza prestatu du, 2007an, Joseba Alvarez Enparanza “Txillardegi”ren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriarren 50. urteurrenean egin daitezkeen jardunaldietarako.

Jardunaldietan parte hartu

Gasteizen, azaroaren 15, 16 eta 17an Filologia Fakultatean, gerra osteko literatura giroaz egin diren jardunaldietan, batzordekide batzuek hitzaldia eman dute:

- Jon Kortazar: “Zaitegiren Goldaketan (1946). Berrirakurketa”
- Txomin Peillen: “Andima Ibinagabeitiaren nortasuna”.
- Gorka Aulestia: “Andima Ibinagabeitiaren nortasun politikoa”.
- Patri Urkizu: “Ibinagabeitiak euskal literaturari eginiko ekarpena”.

Juan Mari Lekuonari buruzko lanak

Juan Mari Lekuona batzordeburu zenaren bio-bibliografiaren prestatze-lanetan parte hartzea erabaki du batzordeak, lanak batzordekideen artean esleituz.

Augustin Zubikarairen omenez, Ondarroan

Ondarroako Udalak 2006ko Lore Jokoak Augustin Zubikarairen omenez antolatu ditu, eta Literatura Ikerketa batzordea Ondarroara gonbidatu du. Batzordeak urriaren 20an Ondarroan egin du hileko bilera, eta bilera aurretik Patri Urkizu batzordekideak Augustin Zubikarairi buruzko hitzalditxoak egin du herritarren aurrean, Ondarroako Kultura Etxean: “Augustin Zubikarai (1914-2004) eta Euskal Teatroa”.



Ondarroa, 2006-X-20. Ezkerretik eskuinera: Patri Urkizu, Aitor Maruri eta Jean Haritschelhar.

II.5.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2006ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: Txema Garcia-Viana. Lana: *Arkitektoa*
- Toribio Alzaga antzerki saria: Alaitz Olaizola. Lana: *Joanes. Itxaropenaren semea*
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: Aintzane Galardi. Lana: *Zirrikituak*
- Mikel Zarate saiakera saria: Sebastian Gartzia Trujillo. Lana: *Herri maitea, herri dorpea*



Egoitza, 2006-XII-18. Ezkerretik eskuinera: Sebastian Gartzia, Alaitz Olaizola, Aintzane Galardi eta Txema García-Viana.

Epaimahaikoak, jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.
- Toribio Alzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Adolfo Arejita, Antton Aranburu eta Iñaki Aldekoa.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2006ko *R. M. Azkue* saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Liburuaren sekretua</i> 2) <i>Lurgaineko kontesa</i> 3) <i>Usoa eta armiarma</i>	Mailen Dagorret Lierni Varela Aur�lie Christmann	Xalbador (Kanbo) Urola (Azpeitia) Xalbador (Kanbo)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Nire burutik</i> 2) <i>Zure irudia</i> 3) <i>Amatxi</i>	Leire Arenas Naia Leconte Kattalin Duhalde	Ikasberri (Azpeitia) Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Trapuzko panpinaren egunerokoa</i> 2) <i>Bizitzaren pentagraman jolasean</i> 3) <i>Ohartu zarelako</i> Accesit: - <i>Kafe usaina</i> - <i>Begien bakarriketan</i>	Izar Azpiroz Alaine Agirre Olaia Azpiroz Jon Cadierno Maite Agirre	Oiartzo (Errenteria) Arozena (Bermeo) Hurtzaro (Oiartzun) Iparragirre (Zumarraga) Loinazpe (Beasain)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Prefabrikatutako ametsak bide itxietan</i> 2) <i>Txoriak askatzen</i> 3) <i>Etsaiak</i>	Haizea Alvarez Izar Azpiroz Unai Lires	Aixerrota (Getxo) Oiartzo (Errenteria) Tx. Agirre (Ondarroa)

Hauek izan dira Azkue Sarietako epaimahaikoak:

- A mailan, Yolanda Arrieta, Antton Irusta eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan, Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.



Egoitza, 2007-III-12. 2006ko Azkue sarien irabazleak.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Espainiako Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionaletarako”, Euskaltzaindiaren izenean 2006ko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:
 - Premio Nacional de las Letras Españolas, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”
 - Poesia arloan, Sebastian Gartzia Trujillo
 - Narrazioan, Jon Kortazar
 - Saiakeran, Henrike Knörr
 - Antzerkian, Patri Urkizu
 - Haur eta gazte literaturan, Maria Jose Olaziregi
 - Itzulpen sarian, Adolfo Arejita

- Iruñeko Udalak antolatu duen Euskarazko Haur Literatura Leihaketako epaimahaian, Paskual Rekalde izan da ordezkaria.

II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegegintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Euskara Batuko batzordearen izaera. Hiztegi Batuko lantaldetik hitz-zerrendak jaso eta Euskaltzaindiaren osoko batzarrean aurkezten ditu, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida bideratu.

Azterturiko oharrak

Euskaltzainek bere egunean honako hitz-zerrenda hauei egin zizkieten 444 ohar aztertu ditu Euskara Batuko batzordeak, eta erabaki-proposamenak osoko batzarretan aurkeztu, ondoren:

- *d* letraren zerrendan, *demokristau* eta *doktorego-tesi* hitzen arteko 313 hitz edo ohar.
- *d* letraren zerrendan, *doktrinamendu* eta *dzast* hitzen arteko 59 hitz edo ohar.
- *e* letraren zerrendan, *ea bada* eta *egikune* hitzen arteko 72 hitz edo ohar.

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean -Euskaltzaindiaren webgunean- JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da:

- Galdeleku informatikoa, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua galdegilearekiko). Urtean zehar 1.325 galdera jaso dira, eta horietako 1.271 galderari erantzun zaie.
- Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Une honetan datu-basea 523 galdera-erantzunez osatua da.
- Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik 42.238 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 45.621 aldiz bistaratu da JAGONETen orri nagusia.

Irizpen eskabideak aztertu eta erantzuna prestatu

Euskaltzaindiaren zuzendaritzak Corpus batzorde honen esku utzi zuen EiTbko albistegietako hizkuntza-jardunaren zer-nolakoa aztertzeke zeregina. Hori dela eta, aztertu dira 2005eko egun jakin batean emititutako ETB-1eko "Eguraldia", "Gaur egun" eta "Bertatik bertara" teleaioak eta Euskadi Irratiko "Mezularia" irratsaioa. Aztertze-lan horretaz gain, EiTbrentzat urteko txostena prestatu da, hizkuntzaren erabilera hobetze aldera zenbait gomendio eta jarraibide eskainiz.



Eibar, 2006-XI-17. Ezkerretik eskuinera: Paskual Rekalde, Juan Luis Goikoetxea, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Andres Urrutia eta Xabier Mendiguren.

Estrategia komunikatiboak

Batzordekide batek “Estrategia komunikatiboak“ izeneko lana aurkeztu du batzordean. Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren barruan kokatzen diren estrategia eta gaitasunez dihardu lanak eta Corpus batzordea gai horri dagozkion baliabideak aztertzen eta lantzen hasi da. Batzordeak, egitasmo hori onartu ondoren, “Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa“ lagineko hamazortzi testu-antolatzaile landu ditu. Helburu pedagogikoa du lan honek, hau da, hizkuntzaren erabilera egokirako adibideak eskainiko ditu.

Euskalkien ekarria aztertu

Euskalkien lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” lan egitasmoa lantzen ari da. Dagoeneko amaitua du bizkaierari dagokion hitzzerrendaren azterketa. Bestetik, hasia da lantaldea nafarrerari dagokiona lantzen, Sakanako lexikoaren azterketari ekinez.

II.7.2. SUSTAPEN BATZORDEA

IX. Jagon Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2005eko abenduan, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, *Eliza eta euskara Bilboko eta Donostiako elizbarrutietan* izeneko jardunaldiak burutu ziren. Han irakurri ziren hitzaldiak bildu eta *Euskeran* (2005, 2) argitaratu dira.

X. Jagon Jardunaldiak

“Europar Batasunean eremu urriko hizkuntzak” goiburupean X. Jardunaldiak burutu dira, 2006ko azaroaren 24an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hauek dira txostengileak eta azertu diren gaiak:

- X. Jagon Jardunaldien aurkezpena: Andres Urrutia, Euskaltzainburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Erramun Osa, batzorde-idazkaria.
- Europar Batasunean eremu urriko hizkuntzak:
 - Patxi Juaristi: “Ikuspegi orokorra”.
 - Erramun Baxok: “Ipar Euskal Herria”.
 - Santiago Larrazabal: “Hego Euskal Herrian, ikuspegi juridikoa landuz”.
- Iparraldea, Nafarroa eta EAERI buruzko txostenak:
 - Jean-Baptiste Coyos: “Iparraldeko egoera”.
 - Andres Iñigo: “Nafarroako egoera”
 - Jose Luis Lizundia: “EAEko egoera”
- Erramun Osa: Ondorioak.
- Andres Iñigo: Azken hitzak.

Txosten hauek abenduko *Plazaberri*-n kaleratu dira (8. zenbakian), eta dagokion *Euskera*-n argitaratuko.



Egoitza, 2006-XI-24. Ezkerretik eskuinera: Andes Iñigo, Andres Urrutia eta Erramun Osa.

Eliza eta Euskara

2006ko urriaren 6an, Berako Kultura Etxean burututako ekitaldian *Eliza eta Euskara*. Jagon jardunaldietako txostenak izeneko argitalpena aurkeztu da. Lan hau, batzordeak azken lau urteotan zehar egin dituen jardunaldietan irakurri diren hitzaldi eta txostenen bilduma da.

Euskaltzaindiaren adierazpenak

2006ko azaroaren 24an *Euskararen sustatzea: Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)* izeneko liburua aurkeztu da; estatusari buruz –batez ere– Euskaltzaindiak egindako adierazpenak-eta biltzen dira liburu horretan. Argitalpen hau, azken urteotan batzordeak egin duen bilketa-lanaren emaitza da.

Euskararen sustapen lana

Baionako epaile batek hartutako erabakiaz

Senar-emazteak banatzen ari direla eta, gurasoetako batek haurra ikastolatik ateratzeko eta eskola publikoan sartzeko eskatu dio Baionako epaile bati. Auzia ebazteko orduan, ikastolek akulturazioa eragiten dutela eta Frantziako kultura zein hizkuntza erabat ordeztu nahi izatea izan dira epaileak eskaria onartzeko baliatutako arrazoi nagusiak. Epaileak erabilitako arrazoiak kezkatzeko modukoak direla iritzita, adierazpen proposamena prestatu du Sustapen batzordeak, euskara erabiltzearen aldeko era askotariko arrazoiak eta gogoetak eginez.

Euskalerria Irratia

Euskalerria Irratia administrazio-lizentzien banaketatik kanpo geratzearen kariaz, Euskaltzaindiak bere iritzia agertu du, besteak beste, euskaldunen eskura jarri beharreko baliabideen artean, garrantzitsuenetako bat euskaraz ari diren irratiak direla nabarmenduz. Kontuan izanik Iruñerria hiztun gehien biltzen duen eta hazkunderik handiena izan duen eskualdea dela, irrati batek esparru horretan euskaraz aritzeko administrazio-lizentzia izateak Foru Komunitatearen barruan euskara zaindu, sustatu eta gizarteratzeari bultzada emanen liokeela adierazi da, Nafarroako Euskararen Legeak agindu bezalaxe.

Iparraldeko “Hizkuntza politika aitzinproiektua”ri oharrak

Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak “Hizkuntza politika aitzinproiektua” kaleratu duelarik, Euskaltzaindiko Sustapen batzordeak berriaz burutu duen bileran aztergai izan du txosten hori. Ekarpenak Euskararen Erakunde Publikoari eskuratu zaizkio, eta 2007ko urtarrileko *Plazaberri*-n ere kaleratu dira, Euskaltzaindiaren agerkari digitalean (9. zenbakian).

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean ikusi den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.I. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa zerbitzua, batzordeen koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitzatik eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkariak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietan 95 ponte-izen eta 220 deiturei buruzko ziurtagiriak egin dira.



Egoitza, 206-XI-16. Ezkerretik eskuinera: Irene Arrarats, Andres Urrutia, Jon Mancisidor eta Martxelo Otamendi.

Bisitei dagokienez, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 1.076.140 bisita izan dira eta www.euskaracorporusa.net helbidean, 137.699 bisita. Horrez gain, Euskaltzaindiaren egoitzan 5.511 lagun izan dira.

Erakundearen bilerak

Bilbon egin ohi dira hileko batzarrak eta Zuzendaritzarenak, nahiz eta Donostian ere tartekatzen diren.

Aipatutako bilerez gain, batzorde eta lantalde hauek ere honakoetan bildu dira: Gramatika batzordea, Donostian; Herri Literatura, Donostian; Literatura Ikerketa, Donostian, Ondarroan eta Gasteizen; Dialektologia-Atlasgintza, Bilbon; Hiztegi Batuko lantaldea, Donostian; Corpus batzordea, Donostia eta Eibarren; Sustapen batzordea, Donostian, Euban, Beran eta Durangon; Euskalkien lantaldea, Donostian eta Eibarren; Onomastika batzordea, Antzuolan, Donostian, Ziordian, Iruñean eta Laudion; Argitalpen eta Azkue Bibliotekako batzordeak, Bilbon.

Zuzendaritza

Gutxienez, hilero biltzen da. Kudeatzaileak eta Idazkariordeak antolatzen dituzte bilerak dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernu, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. Aurten 19 bilera egin ditu ondoko laukian zehazten den bezala:

hila	eguna	tokia
Urtarrila	04	Donostia
Urtarrila	26	Donostia
Otsaila	16	Gasteiz
Martxoa	17	Donostia
Martxoa	30	Gasteiz
Apirila	13	Donostia
Maiatza	05	Donostia
Maiatza	25	Elantxobe
Ekaina	15	Donostia
Ekaina	29	Donostia
Uztaila	13	Bilbo
Iraila	12	Bilbo
Iraila	28	Uxue
Urria	06	Bera
Urria	26	Bilbo
Azaroa	10	Donostia
Azaroa	23	Bilbo
Abendua	05	Bilbo
Abendua	21	Donostia

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die Kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagozkien Herri Administrazioakoei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan 2006. urtean zehar egindako lan behinenak.

Mantenu-lana:

Martxotik aurrera mantenu-intzidentzien Jarraipenerako zerbitzua sendotu da, egindako lana honela banatuz:

- Laguntza teknikoa erabiltzaileei (% 44,57).
- Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak (% 26,18).
- Matxurak eta ustekabekoak (% 16,86).
- Internet zerbitzuak (% 5,87).
- Informatika-segurtasuna (% 6,51).

Informatizazio egitasmoak:

- Hiztegi Batua XMLratzea eta erredakzio ingurune berria garatzea (2. fasea).
- Ordutegi kontrolerako hardware eta software tresnak ezartzea.
- J.M. Satrustegiren artxiboko katalogoaren kontsulta CD-ROM aplikazioa garatzea.
- Linux sistema eragilearen ezarpena zerbitzarietan (SMB fitxategi zerbitzarien sarea, Tomcat/MySQL DB/aplikazio zerbitzaria).
- Atlaseko lantresnaren hobekuntza sorta: interfaze-hobekuntzak, argitalpen modulua garatzea, erreplikazio sarearen arkitektura hobetzea.
- Segurtasun informatikoaren azterketa, ISO-IEC 17799/2005 araudiaren arabera.
- Hiztegitzintza bulegoko telekomunikazio eta informatika azpiegitura hobetzea.
- Euskaltzaindiaren argitalpenak digitalizatzeko egitasmoa.
- Euskaltzaindiaren intranet groupwarearen berprogramazioa.
- Biblioteka akademikoaren artxiborako multimedia lan-ingurunea garatzea.
- Webguneko modulu berriak: *Plazaberri* agerkari digitala eta *Euskera* agerkariaren kontsulta tresna berritua.

Prensa eta Komunikazio zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoz, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen berri ematea.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, *Albiste Orria* deritzana, egiten du, Idazkariordearekin batera.

Aurten zeregin berria hartu du beregain Prentsa zerbitzuak: *Plazaberri* agerkari digitala egitea. *Plazaberri*-ren helburua honako hauxe da: Akademiari buruzko informazioa zabaltzea, hots, Euskaltzaindiak burutu eta burutuko dituen ekitaldi nagusien berri gizaritari ematea. *Plazaberri* Akademiaren webgunean eskaintzen da (www.euskaltzaindia.net), bai eta posta elektronikoko bidez ere.

Aurten, hauek izan dira prentsa bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak Euskaltzaindiaren batzarrei dagokienez:

- Urtarrilean: Euskaltzaindiaren Arautegi aldaketa-proposamena; Bilbon, Bizkaiko Herri Izendegiaren aurkezpena; Donostian, ageriko bilkura: hilberri-txostenak.
- Martxoan: Gasteizen, Jose Irazu “Bernardo Atxaga” euskaltzain berriaren izendapena.
- Apirilean: Urnietan, Mikel Zalbide euskaltzain berriaren izendapena eta Plazido Mujikaren jaiotzaren mendeurrena.
- Maiatzean: Elantxoben, 35 euskaltzain urgazle berriren izendapena eta Andima Ibinagabeitiaren mendeurrena eta Imanol Berriatuari eta Gorgonio Renteriarri omenaldia.
- Ekainean: Euskaltzaindiaren Arautegi aldaketaren onarpena; Donostian, ageriko bilkura: hilberri-txostenak; Zaldibian, F. Ignacio Lardizabalen jaiotzaren bigarren mendeurrena; Iruñean, *Mendaur* argitalpen bilduma berriaren aurkezpena.
- Uztailean: Bilbon, euskaltzain urgazle berriei diplomak ematea; Antzuolan, Ana Toledo euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Irailean: Nafarroa Oinez 2006 dela eta, Beran eginiko ekitaldiak; Uxuen, Patxi Salaberri euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Urrian: Bilbon, R. M. Azkue ikastolaren legeztatzearen 40. urteurrena.
- Azaroan: Bilbon, X. Jagon Jardunaldiak.
- Abenduan: Donostian, Andoni Sagarna euskaltzain berriaren izendapena.

Aretoen erabilera

Egoitza eta Gasteizko ordezkartzaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Bilboko aretoan Bilbo Zaharra Forum elkarteak, besteak beste, honako ekitaldiak antolatu ditu: Jon Arretxeren “Zazpi kolore” saioa, Pedro Miguel Etxenikereren hitzaldia, “Larru haizetara” antzezlan edota “Mario Onaindia hizpide” hitzaldia.



Egoitza, 2006-XII-19. Iñaki Lasa ipuin-kontalaria.

Horrez gain, honako hauek ere erabili dute aretoa: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak; Bilbo, Galdakao, Santurtzi eta Ondarroako Udalek; IRALEk; Atenea argitaletxeak; Gabriel Aresti euskaltegiak; Bilboko Ignazio Ellakuria, Basauriko Urbi, Amurrioko Zaraobe, Markina eta Txurdinagako B. H. Institutuek; Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak; Bizkaia Irratiak; Cadena SER-ek; Udako Euskal Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak; Zorritzetan Euskara Elkartek; *Bizkaie*; aldizkariak eta Mendebalde Kultur Alkartek.

ORDEZKARITZAK

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Euskaltzaindiaren batzarrak Gipuzkoan

Bost batzar arrunt eta bost ageriko batzar egin ditu Euskaltzaindiak Gipuzkoan.

Zuzendaritzaren bilerak

Erakundearen zuzendaritzak zazpi bilera Gipuzkoako ordezkarietan egin ditu: urtarrilaren 4koa eta 26koa, martxoaren 17koa, apirilaren 11koa, maiatzaren 5koa, ekainaren 15koa, azaroaren 10koa eta abenduaren 21koa. Ekainaren 29an ere, Donostian egin zuten batzarra, baina ordezkarietan gabe, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean izan zen.

Batzordeen bilerak

Gramatika batzordea ia hilero Gipuzkoako ordezkarietan bildu da: otsailaren 3an, martxoaren 17an, apirilaren 7an, maiatzaren 5ean, uztailaren 7an, irailaren 22an, urriaren 20an, azaroaren 17an eta abenduaren 15ean. Baita Literatura Ikerketa Batzordea ere: urtarrilaren 19an, otsailaren 17an, martxoaren 24an, apirilaren 7an, maiatzaren 19an, ekainaren 23an, irailaren 22an eta abenduaren 15ean.

Herri Literatura batzordeak ere ohiko du Gipuzkoako ordezkartzan egitea bere bilerak. Hortxe bildu dira urtarrilaren 31n, otsailaren 28an, martxoaren 28an, apirilaren 25ean, maiatzaren 30ean, irailaren 26an, urriaren 31n, azaroaren 28an eta abenduaren 19an. Beste batzorde batzuei ere eman die azpiegitura: Onomastika batzordea bildu da martxoaren 3an, apirilaren 6an eta, urriaren 5ean eta 20an; Exonomastika azpibatzoa, berriz, martxoaren 3an eta 17an.

Jagonet Saileko batzordeek ere izan dute batzar-leku. Horrela, Corpus batzordeak urtarrilaren 13an, martxoaren 3an, maiatzaren 12an, ekainaren 16an eta urriaren 20an bildu da; egun horietan batzorde honetako Euskalkiak lantaldea ere bildu da, urriaren 20an ezik. Azkenik, Sustapen batzordeak ere, izan du batzar-leku: otsailaren 3an eta apirilaren 7an.

JAGONET kontsulta-zerbitzua

Jagonet kontsulta-zerbitzua Gipuzkoako ordezkartzan dago kokatuta eta bertatik erantzuten dira interneten bidez heltzen diren kontsultak.

Jendaurreko zerbitzuak

Nola ponte-izen edo deituren ziurtagiriak eskatzera, hala kontsulta, argibide edo aholku eske hainbat hiritar hurbildu da Gipuzkoako ordezkartzara. Eskaera horiek erantzun edo bideratu dira.

Liburuen aurkezpenak

Otsailaren 10ean, *Antzuolako Toponimia* izeneko liburua aurkeztu da Antzuolako Olaran Etxean.

Martxoaren 3an Ines Pagolaren *Neologismos en la obra de Sabino Arana* liburua aurkeztu da ordezkartzan.



Donostia, 2006-III-3. Ezkerretik eskuinera: Ibon Sarasola, Ludger Mees, Andres Urrutia eta Ines Pagola.

Gonbitak eta ordezkatzak

Gipuzkoako ordezkaria ekitaldi ugarian izan da Euskaltzaindiaren izenean. Oroitidazki honen I. atalean agertzen diren ordezkapenez gain, hauetan parte hartu du:

- Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, abenduaren 3an, Kursaal Jauregian egin zen ekitaldian.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006ko Urrezko Dominak emateko antolatutako ekitaldian, abenduaren 27an, Donostian.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker bulego honetan kokatu dela Toponimia lantaldea eta horren inguruan sortu den lana. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko Udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaie.

Horrez gain, ponte-izen edo deituren ziurtagiriak egin dira. Baita ere kontsulta, argibide edo aholku eske hurbildu diren hainbat hiritarrei erantzun zaie.

OCR programaren bidez Euskaltzaindiaren argitalpenen digitalizazio lana ere egin da.

Ordezkaritzako bulegoak

Orain arte San Antonio kalean zituen bulegoak Akademiak. Arabako foru Aldundiak hala eskaturik, kokapena aldatu da. Urtarrilean egin dira aldaketa eta egokitze lanak, eta martxoaren 23an egin da zabalte ofizialaren ekitaldia Eusko Ikaskuntza eta Euskalerriko Adiskideen Elkartearen erakundeekin batera. Bertaratutakoan artean, Arabako Batzar Nagusietako Lehendakaria, Arabako foru Diputatu Nagusia, Kultura Diputatuak, Ogasun diputatuak, Gasteizko Alkatea, Udaleko Kultura departamenduko zuzendaria eta Udaleko Euskara zerbitzuburua izan dira, besteak beste.

Bisitak

Lurralde honetako ikastetxe, institutu eta euskaltegitako 4 ikasle taldek bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkaritza hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri jasotzeko.

Ordezkapenak

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I. atalean azaltzen den bezala. Horrez gain, hiriko Alkateak deiturik, Gasteiz Hiriko Plan Estrategikoa deritzon proiektuaren barruan egindako bileretan ere parte hartu du Euskaltzaindiaren izenean.

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, 2006. urte honetan honako lan hauek azpimarra daitezke:

OCR sistemaren bidez egindako lanak

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko *OCR* deritzon sistema honen bidez, honako lan hauek egin dira aurten:

- *EGLU* bildumako liburuak.
- ITUREN / ZUBIETA ihauterietako artikulua.

Bestelako lanak

- *Principe de Viana* aldizkariaren aurkitegia, autoreka, egin da.
- Onomastika batzordearentzat, euskarazko oharrak falta dituzten udalerrriak markatu dira.
- *Oinez 2006*ko gonbita eta egitaraua bidali dira Nafarroako hainbat instituzio, ikastetxe eta elkarte kulturaletara.
- Antonio Arrueren idazkiak informatizatu dira.

Ordezkapenak

Nafarroako ordezkaria honako ekintza hauetan ere egon da, I. Atalean zehazten direnez gain, Euskaltzaindiaren izenean:

- Zaldiko Maldiko elkartearen, Euskalerrria Irratiaren egoeraz eta Larreko sarirako hautagaiak mintzatzeko.
- Lizarran ematen den *Manuel Irujo* sari-banaketa ekitaldian.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Bilkurak

Urtean zehar hilero egiten dira ordezkariak honetan kudeaketa-bilerak. Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak, Beñat Oihartzabal buruordeak, Piarres Charriton ordezkariak eta Annie Etxeberrri ordezkariak langileak parte hartu dute. Bestalde, martxoaren 28an, Frantziako Estatuko Elkarte-legearen arabera bulegoan egin da urteko bilera nagusia. Bertako euskaltzain oso eta urgazleez gain, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Kintana idazkariak eta Juanjo Zearreta kudeatzaileak parte hartu dute.

D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria

Agiri hau eskuratzeko ekainaren 17an eta 24an egin dira lehen deialdiko probak eta, urriaren 14an eta 21ean, udazkenekoak. Denetara, aurkeztu direnetatik 75 lagunek gainditu dituzte azterketak.

Diru-laguntzak

Urtean zehar zenbait enpresak eman diote diru-laguntza Euskaltzaindiari. Hauek izan dira : Aiherrako *Lauak*, Hendaiaiko *Sallaberry* garraioak eta *Sokoa* lantegia. Horiez gainera, 28 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

III.2.1. EGITASMOAK ETA ZERBITZUAK

Jose Maria Satrustegiren Artxiboa

Katalogoaren azken zuzenketak egin dira eta DVD batean kontsultatzeko bertsio informatikoa prestatu da. Halaber, lan horien berri jasotzen duen txostena egin da.

Andolin Eguzkitzaren biblioteka

Andolin Eguzkitzaren biblioteka eta artxiboa katalogatzeko egitasmoa maiatzean abiatu da, Santurtziko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez. Funts bibliografiko guztien katalogazioa bukatu da, orotara 2.833 sarrera egin direlarik, eta artxiboaren oinarritzko atonketa burutu da. Hortaz gain, Andolin Eguzkitzaren oinordekoekin hitzartu da ondare bibliografikoaren zati handi bat Euskaltzaindiari ematea.



Egoitza, 2006-III-21. Ezkerretik eskuinera: Javier Cruz, Andres Urrutia eta Edurne Eguzkitza.

Azkue Bibliotekako autoritate guztiak bateratzeko egitasmoa

Aspaldiko asmo bati segituz eta informatika zerbitzuarekin elkarlanean egitasmo bat abiatu da Azkue Bibliotekako datu-base guztien autoritateak bateratzeko. Horretarako, datubaseak analizatu eta oinarritzko tresna informatikoak diseinatu dira.

Resurrección María Azkueren artxiboa

83.000 irudi daukan artxibo osoa digitalizatu da.

Jose Maria Jimeno Jurioren artxiboa

35.000 irudi daukan artxibo osoa digitalizatu da.

Jean Saroihandiren artxiboa

Hitzarmena sinatu da Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatearekin (Bordeaux III) artxibo honen digitalizaziorako eta irudien ustiapenerako, eta lanaren erdi inguru gauzatu da, 31.000 irudi.

Espainiako Kultura Ministerioaren katalogazio erregelen itzulpena

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren gidaritzapean egiten ari den egitasmo horretan laguntzen segitu da.

Katalogazio zerbitzua

Aurten orotara 1.320 sarrera berri egin dira Azkue Bibliotekaren Katalogoan.

Dagerre (Azkue Bibliotekaren digitalizazioak)

Aurten orotara 1.118 liburu eta 67 argazki digitalizatu dira. Bestalde, *Lacombe* egitasmoarekiko digitalizazio prozesua osorik bukatu da.

3.II.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Batzordeak lau txosten hauek onartu ditu.

Euskaltzaindiaren Artxiboa

Txosten honetan Euskaltzaindiaren artxiboaren (ABA) egoeraren analisi orokorra egin da, bi sail handitan banatuz, artxibo administratiboa eta historikoa. Sail bakoitzaren egoera aztertu ondoren artxibo guztien tratamenduan hiru pauso bereizten dira (taxutzea, katalogatzea eta digitalizatzea) eta datozen urteetarako lehentasunen egutegi bat proposatzen da.

Jose Maria Satrustegiren artxiboa

Txosten honetan Jose Maria Satrustegiren artxiboarekin 2004-2005 epealdian egindako lanak deskribatzen dira.

Jean Saroihandiren artxiboa

Txosten honetan Bordeleko Unibertsitatean berriki aurkitutako Jean Saroihandiren artxiboa deskribatzen da.



Egoitza, 2006-VI-19. Erdian, Jose Antonio Arana Martija; ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Sebastian Gartzia, Gidor Bilbao, Gerardo Luzuriaga, Kepa Altonaga eta Prudentzio Gartzia.

Bibliotekan barneratu ez diren liburu eta aldizkariak

Txosten honen bidez Azkue Bibliotekako katalogoan barneratu ez diren liburu eta aldizkariekin zer egin behar den aztertzen da, horiek bideratzeko proposamena eginez.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen liburu hauek bideratu dira 2006. urtean:

1. *Euskera*, 2005, 2

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Adolfo Arejitaren sarrera-hitzaldia; “Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna” jardunaldiak; VIII. Herri Literatura Jardunaldiak; IX. Jagon Jardunaldiak; Hitzarmenak (EAEko Herri Aginteak, FEVE eta Instituto Cervantes). 681 orrialde.

2. *Euskera*, 2006, 1

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Plazido Muxikaren mendeurrena; Andima Ibinagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria idazleen omenaldia; Frantzisko Ignazio Lardizabalen II. Mendeurrena; Juan Mari Lekuona eta Patxi Altunaren hilberri-txostenak. 602 orrialde.

3. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Hauek dira, 2006an zehar, 4. karpetan, XXVIII eta XXIX. arau-sortetan argitaratu diren hizkuntza-arauak:

- 36. Frantziako Errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak (arau zuzendu eta eguneratua)
- 145. Bizkaiko herri izendegia
- 146. Hiztegi Batua: *c - dwandwa*
- 147. Antzinateko hirien euskarazko izenak
- 148. Hiztegi Batua: *ez - ezuste*

4. *Euskaltzaindiaren 2005eko Oroitidazkia / Memoria / Mémoire / Annual report*

Euskaltzaindiak 2005ean egin zituen lanen berri ematen duen argitalpena da, lau hizkuntzatan egin. 332 orrialde.

5. *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*

Andres Iñigo euskaltzainak prestatua. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren barruan koedizioan argitaratua. 316 orrialde.

6. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*

Pello Salaburu euskaltzainak prestatua. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren barruan koedizioan argitaratua. 536 orrialde.

7. *Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa*

Lau hizkuntzatan argitaratu da katalogo hori, Bilbao Bizkaia Fundazioaren dirulaguntzari esker. 504 orrialde.

8. *Eliza eta Euskara, Jagon jardunaldietako txostenak*

Euskera agerkariaren lau zenbakitan zehar barreiatuta zeuden jardunaldietako testuak liburuxka batean bildu dira. 272 orrialde.

9. *Euskararen sustatzea. Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976 - 2006)*

Liburu honetan biltzen diren adierazpenak *Euskera*-n argitaratuak izan badira ere, erabat sakabanatuak aurkitzen ziren. Hori dela eta, argitalpen berezi batean bildu dira. Bestalde, gaur egun euskararen estatusa arautzen duten lege-testu hautatuak gehitu dira, eranskin lagungarri gisa. 178 orrialde.

10. *Santxa*

Aizpea Goenaga Mendiola. 2005eko Toribio Alzaga antzerki-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 70 orrialde.

11. *Mendebaldearen mintzo mindua*

Joseba Azkarraga Etxegibel. 2005eko Mikel Zarate saio-sariaren irabazlea. 226 orrialde.

12. *Narrazioak eta olerkiak 2005*

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak 2005ean antolatu zituzten Azkue sariak irabazi zituztenen lanak argitaratu dira liburu honetan. 154 orrialde.



Antzuolako Kultura Etxea, 2006-II-10. Iaz argitaratu zen *Antzuolako topinimia* liburuaren aurkezpen ekitaldia. Ezkerretik eskuinera: Iratxe Lasa, Andres Iñigo, Jose Angel Zabalo eta Kristina Pavo.

III.3.2. ARGITALPEN SALMENTA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak 2006ko urte bukaeran 1.656 izan dira eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 272. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburu-dendei zuzenean 60 ale saldu zaizkie, banatzaileei 1.192 eta gizabanako eta erakunde desberdinei, 778. Argitalpenik salduenak, *Euskera 2000, 2 (Hiztegi Batua)*, *Euskal Izendegia* eta *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* izan dira. Trukezko harremanetan 700 ale inguru banatu dira.

Azokak

Azaroaren 21tik 26ra, Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua Bartzelonan, *Saló del Llibre 2006* Liburu Azokan, izan da Institut d'Estudis Catalans eta Consello de Cultura Galegarekin batera.

Abenduaren 6tik 10era Durangon egin da Euskal Liburu eta Disko Azokaren 41. edizioa. Beti legez, bertan izan da Euskaltzaindia azken argitalpenak aurkeztu eta bisitariei behar adina informazio eta argibide emanez. Aurten, eta arestian aipatu den elkarlanaren ondorioz, Institut d'Estudis Catalans-eko argitalpenak ere Durangon izan dira. Zerbitzu eta argitalpenen berri eman nahirik, posterrak ikusgai eta egutegi eta triptikoak banatu dira.

Saran izaten den Euskal Idazleen Biltzarrean ere izan da Akademia. Liburu azoka ere baden biltzar hau, geroz eta gehiago Iparraldeko euskaltzaleentzat erreferentzia bilakatzen ari da.

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokatan, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira.

IV. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

IV. 1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

Bost urterako hitzarmena

2005eko urriaren 7tik, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, eta Euskaltzaindiak, bost urterako hitzarmena sinatua dute. Dokumentu horren xede nagusiak hauek ziren: alde batetik, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritza, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarriak finkatzea; eta, beste alde batetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko, alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamenduaren arloan esparrua arautzea. Hitzarmen horren bitartez, Euskaltzaindiaren gastu arrunta eta, oro har, jarduera akademikoa, ziurtatu dira.

Errendapen txostenak

Herri Agintekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, egitasmo eta batzorde akademikoen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Administrazioei. 2006. urteari dagokionez, errendapen txosten hauek igorri zaizkie EAEko Herri Administrazioei: apirilean, 2005eko bigarren urte-erdikoak eta azaroan, 2006ko lehen urte-erdikoak. Txosten horietan, batzorde, egitasmo eta lantalde hauen lana jaso da: Euskaltzaindiaren Hiztegia, Hiztegi Batuko lantaldea, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Gramatika, Dialektologia-Atlasa, Onomastika, Exonomastika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Euskara Batua, Corpus, Sustapen, Azkue Biblioteka eta Argitalpen batzordeak.

Jarraipen Batzordea

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egoitzan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-agintek eta Euskaltzaindiak sinatua duten hitzarmeneko Jarraipen Batzordea bi aldiz bildu da 2006an: otsailaren 23an eta abenduaren 19an. Lehenengo bileran, gai hauek izan dira hizpide: 2006. urterako aurrekontua eta dirulaguntzak, Batzorde Teknikoko kideak izendatzea eta Administrazioako langileen parte hartzeari buruzko lan taldeak eratzea. Bigarren bileraren gai nagusiak, aldiz, hauek: 2005eko kontuen errendapena eta 2007ko aurrekontua.

Aipatu bileretan hauek izan dira: Herri Aginteen izenean, Miren Azkarate, Igone Etxebarria eta Ruben Ramirez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailekoak; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundikoa; Imanol Agote, Gipuzkoako Foru Aldundikoa eta, Federico Verástegui, Arabako Foru Aldundikoa; eta Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Henrike Knörr, Andres Iñigo eta Juan Jose Zearreta.

Batzorde Teknikoa

Otsailaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko herri agintekin sinatua dagoen hitzarmeneko Jarraipen Batzordeak, herri aginteen ordezkari hauek izendatu ditu azken bileran: Bizkaiko Foru Aldundiko Mikel Arruza eta Eusko Jaurlaritzako Araceli Díez de Lezana eta Ruben Ramirez. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, bestalde, martxoaren 17ko

bileran, Batzorde Teknikoan Akademiaren ordezkariak izango direnak izendatu ditu: Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria.

Abenduaren 14an, Euskaltzaindiaren egoitzan, Batzorde Teknikoaren bilera egin da. Bilera hori bi gai hauez izan da: batetik, Jarraipen Batzordean aurkeztekoak ziren gaien prestaketaz eta, bestetik, Euskaltzaindiak 2006ko 1. seihilean egindako lanen errendapenaz.

IV. 2. NAFARROAKO GOBERNUA

2006ko Protokoloa sinatzea

Ekainaren 20an sinatu da Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmeneko 2006ko Protokoloa. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu du eta Foru Gobernuaren izenean Pedro Pegenaute Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak.

Akordio horren arabera, hauek dira 2006. urteko eginkizunak:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA) egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herritako (Etxarri-Larraun, Oderitz eta Sunbilla) grabazioak euskarri digitalean paratu eta ematea.
- Saroihandyren eskuizkribuen eta Jose Mari Jimeno Jurioren Onomastika fitxen digitalizazio lanak gauzatzea.
- Zenbait argitalpenen prestaketa, eta horien artean *Principe de Viana*-n nafar idazleek argitaraturiko lanen bilketa.
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkion lanei jarraipena ematea.



Iruña, 2006-VI-20. Ezkerretik eskuinera: Pedro Pegenaute eta Andres Urrutia.

Jarraipen Batzordea

Ekainaren 20an egin da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera, Iruñeko Hezkuntza Sailaren egoitzan, honako hauek parte hartu dutelarik: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Juanjo Zearreta. Gobernuarenean, aldiz, Pedro Pegenaute, Julen Calvo eta Iñaki Ayesa. Gai nagusiak hauek izan dira: 2005eko eginkizunen jarraipena egitea eta 2006. urterako eginkizunak adostea.

Batzorde Teknikoa

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa bost aldiz bildu da aurten, martxoaren 22an, uztailaren 4an, urriaren 4an, urriaren 19an eta azaroaren 15ean. Nafarroako Gobernuaren izenean hauek izan dira: Adoración López Jurío, Mikel Arregi, Iñaki Ayesa eta Julen Calvo; Euskaltzaindiarenean, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria.

Bilera horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2005eko lanen jarraipena egitea, eta 2006ko eginkizunen egoera aztertzea eta, bereziki, 2007an terminologia juridiko-administratiboari buruz egin nahi diren jardunaldiak prestatzea.

IV. 3. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademiarentzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakundeetako kideekin batera.

Cervantes Institutua

2005eko uztailaren 28an, Euskaltzaindiak eta Cervantes Institutuak lehendabiziko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, egoitzan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, euskal hizkuntza eta kultura bultzatuko dute bi erakundeek, batez ere Euskal Herrikan kanpora eta Instituto Cervantes-en zentroen bitartez.

Euskaltzaindiak Henrike Knörr Iker sailburua izendatua du Akademiaren ordezkari, Cervantes Institutuak kanpoan antolatzen dituen ekitaldietarako. 2006an, ondoko hirietan izan da Henrike Knörr: Sofian, otsailean, eta Palermon, ekainean.

IV. 4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Aginteez, 2000. urtean egindako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari.

2005. urteaz geroztik, Euskal Herriko Hitzarmen Berezian esker Herri aginteez Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatzen ditu. Beraz, Frantziako Gobernuaren, Akitania Lurraldeko Kontseiluaren eta Pirinio Atlantikoaren diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak ematen dizkio Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak urteko Hitzarmena ekainaren 2an sinatu dute, Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren izenean eta Max Brissonnek Euskararen Erakunde Publikoaren izenean.

Frantziako Institutu Geografiko Nazionala

Euskaltzaindiak sinatua du hitzarmena Institutu Geografiko Nazionalarekin, Ipar Euskal Herriko euskal toponimia zehazteko eta finkatzeko. Egitasmoa bukatu da eta emaitzak azken ukituen zain geratu dira.

IV. 5. UDALAK

EUDEL

2004ko otsailaren 27an, Euskaltzaindiak eta EUDELeK hitzarmena sinatu zuten toki erakundeei laguntza teknikoa emateko, izen toponimikoen arloan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, bi erakundeek aholkularitza ematen diete toki-entitateei, lekurik esanguratsuenen izen toponimikoen inguruan hartu beharreko erabakietan.

Donostia

Xalbador bertsolaria kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldeak dihardu hemen lanean.

Gasteiz

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatua du hitzarmena, zeinetan hiriburu horretako ordezkarietan, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimia ikertzen eta normalizatzen aritu den lantaldea -nagusiki- eta ordezkarietako herri zerbitzuak babesten dituen.

Akademiak, 2005eko ekainetik 2006ko uztaila bitartean egindako lanen errendapen txostena aurkeztu dio Udalari. Hauek dira txosten horretan agertzen diren gai nagusiak:

- Euskaltzaindiak Gasteizen duen ordezkarietaz eman dituen zerbitzuak
- Gasteizko Toponimia lantaldearen lana.
- Kasuan kasuko zerbitzuak.
- Kontu-errendapena.

Iruñea

Abenduaren 19an, 2006ko hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Hauxe da bi erakundeok sinatzen duten hamargarren hitzarmena, euren arteko lehena 1997. urtean izenpetu baitzuten. Udalaren izenean, Ignacio Pérez Cabañas Kultura zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute.

Tolosa

2004ko uztailaren 16an, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren xedea honako hau da: "Tolosako Leku Izenak" deituriko lana sistematizatzea, azalpen-testuak lantzea, material grafikoa hautatzea eta maketatzea. Euskaltzaindiak bukatu du lan hori.

Santurtzi

Martxoaren 21ean, Euskaltzaindiak eta Santurtziko Udalak Andolin Eguzkitza idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain zenaren lanak katalogatzeko hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiaren egoitzan. Santurtziko Udalaren izenean Javier Cruz alkateak sinatu du eta Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Akordio horren arabera, Euskaltzaindiak, Eguzkitzak utzitako liburuen bilduma zabala eta idatzi propioak katalogatzeko ardura hartu du eta Santurtziko Udalak, bere aldetik, aipatu lana burutzeko behar den diru-laguntza emango du.

Erandio

2005eko ekainaren 20an, Erandioko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea helburu zuen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Erandioko Udalak eta Euskaltzaindiak. Lan hori egiteko beka eskuratu zuen Iratxe Lasa ikerlariak horretan jardun du urte osoan, Onomastika batzordearen gidaritzapean.

Zornotza

Maiatzaren 24an, lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Zornotzako Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, David Latxaga alkateak eta, Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten. Hitzarmen horren xedea honako hau da: Zornotzako toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea.



Egoitza, 2006-V-24. Ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, David Latxaga, Andres Urrutia, Rakel Iruarizaga eta Ane Olabarri.

Azkoitia

Azkoitiko Udalak eta Euskaltzaindiak, Azkoitiko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko hitzarmena sinatu dute eta horren berri emateko, uztailaren 14an, prentsaurrekoa eman dute bi erakundeotako ordezkariak Azkoitian. Aurkezpenean, honako hauek izan dira: Asier Aranbarri alkatea, Andres Iñigo Euskaltzaindikoko Onomastika batzordeburua eta Eñaut Frantsesena ikertzailea. Horiekin batera, Bakarne Usobiaga Euskara zinegotzia eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria ere bertan izan dira.



Azkoitia, 2006-VII-14. Ezkerretik eskuinera: Bakarne Usobiaga, Eñaut Frantsesena, Asier Aranbarri, Andres Iñigo eta Mikel Gorrotxategi.

Oiartzun

Oiartzungo toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea xede duen lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Oiartzungo Udalak eta Euskaltzaindiak, azaroaren 7an: Udalaren izenean Martin Beramendi alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Jose Luis Lizundia diruzainak. Hitzarmen horren arabera, Euskaltzaindiaren eginkizunik nagusia izango da toponimia bildu, finkatu, arautu eta normalizatzeari buruzko aholkuak eta irizpenak eskaintzea. Era berean, Akademiari dagozkio ikerketaren zuzendaritza eta aholkularitza zereginak.

IV. 6. UNIBERTSITATEAK

IV. 6. 1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanari esker, Aurelia Hernandez Mataren doktorego tesia argitaratuko dute bi erakundeek. Lan horren izenburua hauxe da: *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920 – 1944). Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan.*

IV. 6. 2. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute, 2003ko abendutik, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko.

2006an, Euskaltzaindiko lan hauek katalogatu dira *Inguma* datu-basean:

- 2004ko azken hilabeteetan argitaratutako liburuak.
- 2005ean argitaratutako liburuak.
- *Euskera* aldizkariaren 2005eko zenbaki biak.

IV. 6. 3 DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Euskaltzaindiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena indarrean dago 2001etik. Horren barnean, 2006. urteari dagokionez, *Deiker* Unibertsitate horretako Ikerkuntzaren Sustapenerako Institutuarekin batera, Toponimia arloko gaiak landu dira.

IV. 7. EUSKALTEL

2002. urtetik, Euskaltel enpresak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horren bidez, Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari eta Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoko datutegia dauka bere ordenagailuetan (www.euskaracorporusa.net) horren kostua bere gain hartuz.

IV. 8. EITB

Euskal Irrati Telebistak (EiTB) -eta horren sozietate Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoria- eta Euskaltzaindiak elkarren arteko lehendabiziko hiru urterako lankidetzahitzarmena sinatu zuten 2003an.

Akordio horren arabera, bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmenak hiru arlokoak dira: lexikoa, batez ere onomastika alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarri lotua; hizkuntzaren gramatika; eta ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotuak.

Bestalde, hitzarmen horren ildotik, bi txosten hauek helarazi dizkio Euskaltzaindiak EiTBri: bata, albistegi batzuei buruzkoa eta, bestea, glosario batez.

IV. 9. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzahitzarmena sinatu zuten, 2004ko urriaren 21ean. Bost urteko iraupena duen hitzarmen horrek, bi erakundeen arteko loturak sendotzea du helburu, elkarren aitorpenetik abiatuz.

IV. 10. TOPAGUNEA

2005eko apirilaren 12an, Topagunea Euskara Elkarten Federazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzahitzarmena -bost urteko iraupena izango duena- sinatu zuten, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Hitzarmen horren ondorioz, bi erakundeok elkarlanean arituko dira, euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan, baita Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta egindako gomendioak zabaltzeko ere. Euskararen erabilera egokia bultzatzeko, Topaguneari laguntza eskainiko dio Euskaltzaindiak, euskal lexiko, gramatika, toponimia, ortografia eta euskalkiei buruzko kontsultak direnean.

IV. 11. FEVE

2005eko ekainaren 15etik, FEVEk (*Ferrocarriles de Vía Estrecha* delakoak) eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzaren hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horrek, hizkuntzaren normalizazioa du helburu. Horren bidez, tren-geltokien izenak edota trenbideko euskarazko testu guztiak modu egokian jartzeko laguntza ematen dio Euskaltzaindiak FEVEri.



Balmaseda, 2006-I-11. Ezkerretik eskuinera: Paco Basterretxea, Mikel Gorrotxategi, Verónica Portell eta Pello Telleria.

Pello Telleria idazkariordea eta Mikel Gorrotxategi Onomastika Zerbitzuaren arduraduna dira hitzarmen horren Jarraipen Batzordeko Euskaltzaindiaren ordezkariak. Urtean zehar bilera bat egin dute bi erakundetako ordezkariak, eta gainerako harremana posta elektronikoko bidez izan da, FEVEk eskatu duen laguntzari erantzunez.

IV. 12. BIZKAIA IRRATIA

Urriaren 18an, Bizkaia Irratiak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, Akademiaren egoitzan. Bizkaia Irratiaren izenean Dorleta Alberdi zuzendariak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Sinaduraren ostean, zuzeneko irratsaioa eskaini du irratiak, Euskaltzainditik bertatik. Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Adolfo Arejita euskaltzainek eta Dorleta Alberdi zuzendariak hartu dute parte, Udane Goikoetxea Bizkaia Irratiko kazetariaren gidaritzapean.



Egoitza, 2006-X-18. Ezkerretik eskuinera: Udane Goikoetxea, Asier Astui, Dorleta Alberdi, Adolfo Arejita eta Andres Urrutia.

Hitzarmenak bi urteko iraupena izango du. Hauek dira ildo nagusiak: Bizkaia Irratiak eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote eta, bereziki euren artxibategi, fonoteka eta bibliotekak erabiltzeko aukera; Euskaltzaindiak erantzuna emango die Bizkaia Irratiak egindako kontsultei; irratigintzaren arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako programak sustatuko dira; erakunde biok elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako eta fonoteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funtsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

IV. 13. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA (EKT)

Urriaren 20an, Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Hitzarmen horrek, euskara eta euskal kultura zabaltzea du helburu. EKTren izenean Joxean Lizarribarrek sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Urte bateko iraupena izango duen hitzarmen horren xede nagusiak hauek dira: Euskarazko Komunikazio Taldeak eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote; bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko; argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira; EKT eta Euskaltzaindia elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako euskal funtsak sendotzeko;



Andoain, 2006-X-20. Ezkerretik eskuinera: Juan Mari Larrarte, Joxean Lizarribar, Andres Urrutia eta Xabier Kintana.

lankidetzeta politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezten, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

IV. 14. LABAYRU EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Urriaren 26an, Labayru Euskal Kultur Erakundeak eta Euskaltzaindiak urte bateko iraupena izango duen lankidetzak-hitzarmena sinatu dute, Akademiaren egoitzan. Hitzarmen horrek, euskara eta euskal kultura zabaltzea du helburu. Labayruren izenean Ander Manterolak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.



Egoitza, 2006-X-26. Ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Ander Manterola.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak: bi erakundeok lankidetzak-proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko irakaskuntza, ikerketa eta pedagogiaren eremuan; bi erakunde horiek elkarri euren irakaskuntza- eta ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera; argitalpenen arloan elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, irakaskuntza normalizazioaren eremuan, euskarazko testuak edo ikerketa- nahiz zabalkunde-lanak batera kaleratzeko; lankidetzak politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia

V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak

V.2. Hitzarmenak

V.3. Batzordeen zerrendak

V.4. Aurkitegia

V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak

EUSKALTZAIN OSOAK

Jose Antonio Arana Martija (emeritua)
Adolfo Arejita
Miren Azkarate
Pierre Charritton (emeritua)
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce “Iratzeder” (emeritua)
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar (emeritua)
Andres Iñigo
Jose Irazu “Bernardo Atxaga”
Xabier Kintana
Henrike Knörr
Emile Larre (emeritua)
Jose Luis Lizundia
Beñat Oihartzabal
Txomin Peillen
Andoni Sagarna
Patxi Salaberri
Pello Salaburu
Ibon Sarasola
Ana Toledo
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta
Mikel Zalbide
Antonio Zavala (emeritua)

ZUZENDARITZA

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, buruordea
Xabier Kintana, idazkaria
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr, Iker sailburua
Andres Iñigo, Jagon sailburua

ORDEZKARIAK

Gipuzkoa: Ana Toledo
Araba: Henrike Knörr
Nafarroa: Andres Iñigo
Iparraldea: Pierre Charritton

ERAGILEAK

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea
Pello Telleria, idazkariordea
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea
Prudentzio Gartzia, Bibliotekako zuzendaria

V.2. HITZARMENAK

Euskaltzaindiak zenbait erakunderekin sinatuak dituen hitzarmenen berri ematen da ondoren, eta zein diren Akademiaren ordezkariak.

Erakundea	Ordezkaria(k)
Deustuko Unibertsitatea	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea)	Diruzaina, Idazkariordea
Euskal Herriko Unibertsitatea	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Gasteizko Udala	Arabako ordezkaria
Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak	Burua, Idazkaria, Diruzaina, <i>Iker</i> eta <i>Jagon</i> sailburuak
Nafarroako Gobernuak	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
UZEI	Idazkariordea, Kudeatzailea
Instituto Cervantes	Idazkaria, Diruzaina eta <i>Iker</i> sailburua
Udako Euskal Unibertsitatea	Euskaltzainburua
Topagunea	Idazkaria eta Diruzaina
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Jon Aurre
FEVE	Pello Telleria eta Mikel Gorrotxategi
Bizkaia Irratia	Jose Luis Lizundia eta Adolfo Arejita
Euskarazko Komunikazio Taldea, S. A.	Andres Urrutia eta Ana Toledo

V.3. BATZORDEEN ZERRENDAK ¹

IKER SAILA

Sailburua: Henrike Knörr

I. HIZTEGIGINTZA

Burua: Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da:

I.1. *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldea*

Arduraduna: Ibon Sarasola

Kideak: Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea

Arduraduna: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

II. GRAMATIKA batzordea

Burua: Pello Salaburu

Idazkaria: Jesus Mari Makatzaga

Kideak: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe.

III. DIALEKTOLOGIA

Burua: Adolfo Arejita

Atlasgintza lantaldea

Arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

¹ Izendapen hauek (2005-V-28) 2005 eta 2006rako dira.

IV. ONOMASTIKA batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Patxi Galé, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Amaia Usabiaga.

Exonomastika

Arduraduna: Jose Luis Lizundia

Kideak: Gidor Bilbao, Patxi Galé, Xabier Kintana, Alfontso Mujika.

Aholkulariak

Jean-Louis Davant, Imanol Goikoetxea, Isabelle Duguine, Jose Antonio González Salazar, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Hector Iglesias, Iratxe Lasa, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernadette Soulè, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA

Burua: Jean Haritschelhar

V.1. Herri Literatura batzordea

Arduraduna: Pello Esnal

Idazkaria: Jabier Kaltzakorta

Kideak: Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Emile Larre, Abel Muniategi, Patziku Perurena, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa batzordea

Arduraduna: Jean Haritschelhar

Idazkaria: Lourdes Otaegi

Kideak: Xabier Altzibar, Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Iratxe Retolaza, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. EUSKARA BATUKO batzordea

Burua: Pello Salaburu

Kideak: Miren Azkarate, Xabier Kintana, Henrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VII. JAGON SAILA

Jagon sailburua: Andres Iñigo

VII.1. Corpus batzordea

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual Rekalde.

Euskalkien lantaldea

Arduraduna: Paskual Rekalde

Kideak: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Pello Esnal, Nagore Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Maialen Hiribarren, Patxi Iñigo, Manu Ormazabal, Alazne Petuya.

VII.2. Sustapen batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Erramun Osa

Kideak: Erramun Baxok, Pierre Charriton, Jean-Baptiste Coyos, Aingeru Epaltza, Henrike Knörr, Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal, Jose Luis Lizundia, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia, Ana Toledo.

Aholkularia: Xabier Erize

* * *

EGITURAZKO BATZORDEAK

VIII. ARGITALPEN batzordea

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Andres Iñigo, Xabier Kintana, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pello Salaburu.

IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea

Burua: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria: Prudentzio Gartzia

Kideak: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Sebastian Gartzia Trujillo, Henrike Knörr, Gerardo Luzuriaga.

Aholkulariak: Joseba Agirreazkuenaga, Agurtzane Juanena, Joseba Lakarra.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea

X.1. Lege azpibatzerdea

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

X.2. Ekonomia azpibatzerdea

Burua: Jose Luis Lizundia

Idazkaria: Juan Jose Zearreta

Kideak: Xabier Erdozia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe, Javier Saizar.

V.4. HELBIDEAK

EGOITZA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e: info@euskaltzaindia.net
Http://www.euskaltzaindia.net
Kudeatzailea: Juan Jose Zearreta

PRENTSA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: prentsa@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Amaia Okariz

ARGITALPEN ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: rbadiola@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Ricardo Badiola Uriarte

ARGITALPEN SALMENTA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Gordailua:
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: (00-34) 94 440 62 58
Posta e.: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Jon Artza

AZKUE BIBLIOTEKA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 27 45
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria: Pruden Gartzia

ONOMASTIKA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: mikelonoma@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Mikel Gorrotxategi

ORDEZKARITZAK

ARABA
Alava Jenerala, 5
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: (00-34) 945 23 36 48
Faxa: (00-34) 945 23 39 40
Posta e.: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Henrike Knörr

GIPUZKOA
Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf. : (00-34) 943 42 80 50
Faxa: (00-34) 943 42 83 65
Posta e.: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Ana Toledo

NAFARROA
Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf. : (00-34) 948 22 34 71
Faxa: (00-34) 948 21 07 13
Posta e.: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Andres Iñigo

IPARRALDEA
Paul Bert plaza, Gaztelu-Berria, 1. solairua
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa: (00 33) (0) 559 59 45 59
Posta e.: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Pierre Charritton